

ANDRE ZURIA

**EUKENE MARTIN
XABIER ZORROZA**

ANDRE ZURIA
Bi ekialditako tragikomedia bat

TORIBIO ALTZAGA SARIA, 1984
Euskaltzaindia
Bizkaiko Aurrezki Kutxa

© **EUKENE MARTIN - XABIER ZORROZA**

© **BIZKAIKO AURREZKI KUTXA**

Buenos Aires, 4 - 1.º

48001 BILBAO

ISBN: 84-7231-966-0

D. L.: BI- 1699 - 85

Fotokonposateka: Ipar, e.k.

Particular de Zurbaran, 2-4

48007 Bilbao

Imprimatzaile: Editorial Ellacuría, S.A.L.

Ribera de Erandio, 19

Erandio (Vizcaya)

AURKIBIDEA

LEHENENGO EKITALDIA

I. ESKENA.....	11
II. ESKENA.....	16
III. ESKENA.....	18
IV. ESKENA.....	21
V. ESKENA.....	24
VI. ESKENA.....	27
VII. ESKENA.....	30
VIII. ESKENA.....	33
IX. ESKENA.....	34

BIGARREN EKITALDIA

I. ESKENA.....	39
II. ESKENA.....	49
III. ESKENA.....	58
IV. ESKENA.....	64
V. ESKENA.....	71
VI. ESKENA.....	80
VII. ESKENA.....	85
VIII. ESKENA.....	91
IX. ESKENA.....	94
X. ESKENA.....	98

LEHENENGO EKITALDIA

I. ESKENA

Pertsonaiak: Autoestopista.

(Beste pertsonaiak suposatzen dira: kotxeen barruan doazen pertsonak. Antzertokiko jendea.)

.....

Teloia jaso orduko Iparragirrenen doinuak entzuten dira. Jasotakoan, auto-zarata musikari gaintitzen zaio poliki. Eskenatokian kamino-paisaia ikusten da. Baina kamino zati txikitxo ez beste. Eskenatokiko zoluan plastikozko tirak itsasirik daude, kaminoko lerroak seinalatzeke. Kaminoa ez doakio paraleloki ikusleari, baizik eta beraien zuzenbide berean: eskenatokiko hondoko aldetik hasi, eskumaldera pixka bat kirimildu eta iluslearenganantza doa. Izan ere, kamino hori jarraituko balitz, ikusleak honen erdi erdian legozke. Eta, auto-zaratak jo eta ke entzuten direnez —zarata batzuk eskenatokitik ikuslearenganantza, beste batzu ikuslearen atzekaldetik eskenatokirantza datozelarik— jendeak, kaminoaren erdian dagoela pentsatu behar du.

Kaminoko plastikozko tirak eskenatokiaren muga bukatzen dira, eta kaminoaren ezker aldetik leku librea dago: erretena dela suposatzen da. Aldeetatik pinu eta mendixkak egon daitezke, trafiko-seinale eta iragarkiak ere bai. Arratsaldeko argia. Erretenean, autoestopista ileluz eta bizardun bat, erropa aproposez: fraka motzak, mendirako botak eta izugarrizko motxilatik katilu ugari zintzilik. Auto-stop eginez ikusleenganantza doa astiro, lehen bertsu bat kantatzen duen artean. Iparragirrenen doinu hauetariko bat: «Gazte gaztetatikan», «Kitarra zahartxo bat» edo «Zugana Manuela».

AUTOESTOPISTA

«Nik nondik nora noan
ez dut jakiten maiz,
urruti nabil beti
aurrera egin nahiz;
asfalto eta hautsa

dauzkat emaztegaiz
bide bazterretako
autoestopista naiz»

(Eskenatokia eta kaminoa bukatzen den lekuan gaztea harriturik gelditzen da ikusleei begira)

AUTOESTOPISTA

(Ikusleei) E! Gaizki zaudete hor, bide erdi erdian! Hegalera zaitezte pixka bat, behintzat! *(Une bat geroago)* Danok ari al zarete auto-stop egiten? Ez badizue gehiegi ardura, utz iezadazue pista librea, arren!

(Antzertokiko atzeko aldetik eskenatokirantza kotxe zarata bortitz eta progresiboa entzuten da. Ikusleak atzera begiratu behar du instintiboki, eta zarata, jendearen buru gainetik zeharkatuko baiditzen, aurrera joan eta urrundu. Zarata ozenago denean:)

AUTOESTOPISTA

Kontuz! Gainera, benetan hor gaizki zaudetela. Pentsa ezazue ni ez naizela edonor, kontura zaitezte nork hitz egiten dizuen: esan daiteke kaminoko profesionaria naizela, bizibide honetan hainbat egun eta hainbat gau daramana. Eta zergatik ez izan profesionaria, e? Batzuk injinadoreak dira... besteak medikuak... hainbat langile... gehienak langabeak... Eta ni, autoestopista. Nire lana besteak bezelakoa da. *(Bertso eta kantaz berriz, doinu berberaz).*

«Gauza ezezagunak
du bere dizdira;
hotzaz eta beroaz,
makina bat bira,
bide asko garratzak
bilakatzen dira,
baina beti bizi naiz
aurrera begira»

(Lau azken lerroak errepikatzen dira).

(Azken bertsoan autoestopista hunkiturik —kamino erdian, buru alaia gora begira eta besoa luzaturik— ez da konturatzen kaminotik datorren kotxeaz. Autorik ez da ikusten, zarata ez beste entzungo da; eta aktoreak, benetako kotxea baletor bezala egin behar du. Jauzi bat emanez erretenera doa. Eta mutilak, urruntzen ari den auto-zaratari, oihu eta keinu txarra egiten dio.)

AUTOESTOPISTA

Putaseme! *(Auto-zaratatik «Zure aita!» entzuten da. Orain mutilak ikuslearengana jotzen du)* Begira ezazue zein arriskutsua den

ogibide hau! Edozeinek ezin lezake jasan honelako bizitza. Gero esango dute gutaz...

(Bere jantzi eta botak astintzen ditu, hautsaz edo zikindu dituelako. Beste kotxe-zarata motelagoak entzuten dira.)

AUTOESTOPISTA

(Ikusleei irribarrez) Ikusten duzue zenbat auto? Hau bai dela martxa! Arratsalde ona izango ote dut? (Motxila kendu eta zoluan uzten du) Ea, lan egiteko ordua da! (Pozik, jendeari bizkarra emanaz kaminoko beste aldetik —eskenatokiaren hondotik— begiratzen du. Hortik, auto garesti baten zarata dator progresiboki. Autoestopistak, eskua bekokian jarririk hobeto nabari ahal izateko eta beste eskua auto-stop keinuaz, antzerkitokiko jendeari kotxe barruan nor datorren azaltzen dio bertsoz eta lehenengo doinuaz).

«Gorbatadun bat dator
traje ta bibote
exekutibo jantziz
hainbeste arlote;
holako kotxe ederra
niretzako ote?
Ford Granada zikindu
egingo niokel!»

(Kotxea ez da geratzen. Autoestopistak eskeptizismoz begiratzten du nola urruntzen den.)

AUTOESTOPISTA

Jakina! E, hara beste bat! *(Beste aldea seinalatuz. Kantaz eta doinu berberaz deskribatzen du barruan datorrena, auto-stop egiten duen bitartean)*

«Mutil honek ez ditu
hogetamar urte
hauek kasu piska bat
egiten digute: *(kotxe-zarata autoestopistaren alboan entzuten da, beraren parean egongo bailitzan)*
gelditzeko ederki
begiratzen dute

(Orain, kotxe-zaratak abiadura haundiagoa hartzerakoan, kotxea joan egin dela suposatzen da. Autoestopistak harriturik, nola urruntzen den begiratzuz, bere zangoak miatu eta bertso-kanta bukatzen du:)

neska eder bat banintz
frenatuko luke»

(Eskenatokiko hondotik beste auto-zarata hurbilduz datorrela entzuten da. Autoestopista jendeari behin eta berriz.)

AUTOESTOPISTA

Hortik beste bat dator. Ea zorterik dagoen...! *(Eta lehenengo doinuaz kanta egiten du)*

«Dozena erdi bat haur
emazte ta senar:
kotxe gizajo hori
hor dator lehertzeaz;
ume batek txisa ta
beste batek negar:

(Hona heldurik kotxea autoestopistaren parean entzuten da, bere aurrez bailegoen. Mutilak, auto-stop egiteko prest zeukan hartzamarra kendu eta ezkututzen du, bertsoa amaituz batera)

hauek ez dute seme
gehiagorik behar»

(Behin eta berriro eskenatokiko hondotik auto-zarata. Oraingo hotsa kotxe zahar eta hondatuarena da. Autoestopista, hori begiratzera koan, alaitu egiten da.)

AUTOESTOPISTA

Azkenean, ni bezalako gazteak datozkit! *(Kantaz berriz)*

«Hauek seguru baietz
gelditzen zaizkidan
motxila jasotzera
banoa segidan *(motxila hartu eta jartzen du. Bien bitartean kotxe-zarata urruntzen da. Ez da geratu eta autoestopista lelotuak azken leerroak kantatzen ditu)*

Ni bezala gazteak
ziren biak, bainan
ene, zenbat ezuste
hartu behar diran!»

(Segidan, geratu gabe beste auto-zarata. Bertso eta doinuari darraie)

AUTOESTOPISTA

«Neska bi hauek ere
ez zaizkit gelditzen
zerk uxatzen zaituzten
nik ez dut aditzen:

neska bakarra balitz
ohartuko nintzen
ia ez die uzten
beldurak bizitzen»

(Eskenatokiko argiak lehendik apurka-apurka amatatuz joan dira, eta hona heldurik are gehiago, gaua heldu delako. Autoestopistak zeruari begira, motxila kentzen du eta ilunki ezartzen da bere alboan. Bien bitartean kantari darraio.)

«Inor ez da gelditzen
gaua da gainera,
nitaz beldurtzen dira
ilunduz batera,
bihar egin dezaket
bidean aurrera,
lo egitera noa
bide bazterrera»

(Dena ixildu egiten da. Autoestopista, motxilaren gainean burua jarririk, lotan datza.)

II EZKENA

PERTSONAIK: Andre zuria eta autoestopista.

.....

(Eskenatokia gaueko argi urdinean murgildurik dago. Musika-hari fina, kirol-autoarekin batera entzuten da. Eskenatokiko hondoko atea zabaldu, eta argi urdinaren erdian auto bat agertzen da. «Benetako auto hau» goitibera zuria da, nahiko zabala bi pertsona batera muntatzeko —bi goitibera lotuak paraleloki, esate baterako— eta ezkerraldeko aldean neska eder eta zuriegi bat dago, ibilgailua gidatzeko keinu aproposak eginez. Neskak kotxea gerarazi du autoestopista loak hartuaren parean eta antzerkitokiko jendeari aurrez-aurre begira. Neska zuriak mutila ikusi, eta autoestopistak berari jaramonik ez. Orduan neskak kotxe-turuta jotzen du, burrunbaz. Autoestopista izualdi batetan esnatzen da. Eserita jarri eta andre zuri eta ederra harriduraz begiratzen du, ezer esan gabarik.)

ANDRE ZURIA

(Lasaitasunaz) Norbait itxadoten ari zara?

AUTOESTOPISTA

(Hunkiturik) Zeu itxadoten zaitut!

AUTOESTOPISTA

(Barre algaraz) Benetan?

AUTOESTOPISTA

(Zolutik altxatzen da, neskari begira. Kopla nagusiak kantatzen hasten da, «Gora Nafarra, gora Errioxa» erara edo)

«Zu agertzea eskertzen dizut
ezin duzu jakin zenbat.

(jendeari begira) Hau ez ote da, gero, izango
amets zoragarriren bat?» *(Bi lerro azken hauek
errepikatzen dira).*

ANDRE ZURIA

(*Barre algaraka*) Amets zoragarriren bat? Ez, ez! Ni, etorkizunerako errealitatea naiz.

AUTOESTOPISTA

Etorkizuna? Zer da hori? Gaur egunekoa ulertzen dut. ez beste.
(*Kanta eta bertsoz behin eta berriz, koplak nagusian*)

«Berebiziko emakumea
elurra bezain zuria;
hau izango da gaur eguneko
andrearen irudia» (*lerro hauek errepikatzen dira*)

ANDRE ZURIA

(*Barre algaraka*) Bai zera! Nora zoaz?

AUTOESTOPISTA

Zurekin noa.

ANDRE ZURIA

Zatoz nirekin, orduan! (*Keinuz, autoaren beste aurreko atea zabalduko balio bezala*)

AUTOESTOPISTA

(*Zutik eta higitu gabe dagoelarik, neskaren eskua hartu eta kantatzen du*)

«Aurpegi zurbil, ilargitsua,
hegal zuridun larrosa;
zure eskua hartuz batera
nire bihotzak, hau poza!» (*Errepikatu egiten ditu*)

Autoestopistak motxila presaz hartu, lepoan jarri eta neskaren alboan —goitiberaren leku librean— esertzen da. Ez du motxila lepotik kendu behar, guztiz pozik dago eta. Kotxearen martxa-zarata, eta aurrera doazela dirudi, antzertokiko jendearen aurrez-aurre dardelarik. Pozik, kanta egiten du)

«Oraindik ere atsegina da
mundu hontan bizitzea:
ezin sinetsi neska hain eder
ta bakarrak gelditzea».

III. ESKENA

Pertsonaiak: Andre zuria, autoestopista eta informabideetakoak.

.....

(Autoestopista eta andre zuria hitz egiten ari diren bitartean, kotxearen zarata martxan bailego entzun behar da).

ANDRE ZURIA

(Barre algaraka) Pozik zaude, lagun! Zergatik, ba?

AUTOESTOPISTA

Ez dago arrazoirik, ala? Kotxe bat lortu dut dagoeneko eta... (neskari begira) horrez gainera zure alboan nago, ederra!

ANDRE ZURIA

Hori pozik egoteko arrazoia dela banetan uste zuzu?

AUTOESTOPISTA

Jakina! Badago besterik pozik izateko, ala?

ANDRE ZURIA

Ez zara goizale, txo! (Begiak zeruari begira eta zirrara artifizialaz) Bizimoduko gauza sinpleak huskeriak dira eta. Historiaren bi-deak aldatzeko arrazoiak, patuek mugatzen dituzten ekintzak, etorkizunerako mezuak... horiexek bai direla alaitasuna ematen duten zerak...

AUTOESTOPISTA

(Eszeptikoki) Behin eta berriz etorkizunak gora ta behera... Eta badago norbait honelako gauza haundiosa betetzeko prestatua denik, ederra?

ANDRE ZURIA

Ni, neu, hain zuzen.

AUTOESTOPISTA

(*Liluraturik, neskari begira*) Horrek ez nau harritzen.

ANDRE ZURIA

Nondik zatoz, txoriburu?

AUTOESTOPISTA

(*Atzea seinalatuz*) Atzetik.

ANDRE ZURIA

(*Pixka bat haserre*) Baina non jaio zaren jakin nahi dut, haize-puxka!

AUTOESTOPISTA

(*Atzea berriro seinalatuz*) Han. Aspaldian gertatu zenez, ahaztu egin dut.

ANDRE ZURIA

Eta nora zoaz?

AUTOESTOPISTA

(*Aurrera seinaltuz*) Aurrerantza.

ANDRE ZURIA

(*Berriz pixka bat haserre*) Baina zein tokitara galdetzen dizut, babalore!

AUTOESTOPISTA

(*Sorbaldak altxatuz, indiferentziaz*) Eramaten nauten tokira. Eta beti aurrera. Badaki norbaitek nora joan nahi duen, ala?

ANDRE ZURIA

Noski, txotxolo! Nik, esate baterako, Parisera joan nahi dut...

AUTOESTOPISTA

Ez da toki txarra, ez. Baina zergaitik Paris, eta Irun, Barakaldo edo Apatamonasteriora ez?

ANDRE ZURIA

(*Irribarrez*) Haundia zara, untxitxo! Ez ditut izendatu dituzun lekuak ezagutzen, baina Paris bezain garrantzitsuak ez dira segu-

raski izango, ezta? (Autoestopistak burua eragiten du, zalantzez)
A, Paris, Paris! (Zirrara artifiziosoaz) Europako iraultzarik aipatu-
enaren sehaska! Bertan gertatuko da oraingo transformakuntza
garrantzitsuenetarikoa ere!

AUTOESTOPISTA

(Izuz) Ez da izango! Burrukan daude berriz, ala?

ANDRE ZURIA

(Barre algaraka) Bai, xoxoa! Burruka kultural batetan dihardu-
te!

AUTOESTOPISTA

(Lasaiago) Zorionez honela bada! (Pentsakor) Egia esan ez
dut piperrik ere ulertzen, baina Parisera joan nahi baduzu, elkarre-
kin helduko gara, Jainkorako! (Eta lehengo koplak eta kantak erre-
pikatzen ditu)

«Aurpegi zurbil, ilargitsua,
hegal zuridun larrosa;
zure eskua hartuz batera
nire bihotzak, hau poza!

Berebiziko emakumea
elurra bezain zuria,
hau izango da gaur eguneko
andrearen irudia»

(Autoaren zarata amatatzen da. Eskenatokiaren hondoan Eifel
dorreko itzala argizatzen da, eta hotel batetako sarrera dager.)

ANDRE ZURIA

Heldu egin gara! (kotxetik bajatzen da)

(Hau esanez, hiru atetatik eta antzertoki bertatik pertsonaiak ir-
tetzen dira, alai eta zarataka: erreportariak, argazkilariak, telebis-
takoak... Jai-musika han hemenka. Andre zuria inguratzen dute,
gaueko argia flasez betetzen den bitartean.)

Autoestopistak, oraindik kotxean muntata dagoelarik, bere bu-
ruan hatz egiten du, eta antzertotiko jendea begiratzen du bere harri-
dura adieraziz.)

IV. ESKENA

Pertsonaiak: Italiarra, frantsesa, yankiarra, autoestopista, hoteleko gerente eta antolatzailea, andre zuria eta informabideetakoak.

.....

(Andrea bezain zuri diren hiru pertsonaia agertu dira. Batak, frantsesa kutsuaz hitz egiten du; besteak amerikeraz, eta hirugarrenak italieraz)

ITALIARRA

(Andre zuriarengana doalarik) Kaixo «bambiba» maitia! *(Musu ematen dio, afektazioaz. Gero, plazerki begiratzen du)* «Bella!» «Bellissima!»

FRANTSESA

Andre zuriaren eskua musukatzen du) Zer moduz, «ma chérie, ça va?». *(Gero, alboan dagoen hoteleko gerenteari diotso)* «Mon dieu!» Zenbat jende! Noiz hasiko gara?

HOTELEKO GERENTEA

Berehalaxe, jauna. *(Eskenatokian dagoen jendeari)* Pasa zaitezte, otoi, hoteleko batzartegira!

YANKIARRA

(Andre zuriarengana doa era eskua bortizki ematen dio) «Hello, gazte, how do you do?». *(Andre zuriak irribarreaz erantzuten dio).* «Brabo, baby! Beautiful, benetan!»

(Autoestopistak, oraindik «kotxean» muntata dagoelarik —inork ez dio kasurik egiten— antzertokiko jende konplizeari bertso batzu botatzen dizkio autotik irtetzen den artean. Doinua: zortziko nagusia, Iparragirrereren «Ezkongaietan zarbait banintzan» edo «Ume eder bat»).

AUTOESTOPISTA

«Flashen artean, jaun dotoreak
zertan datozkigu guri?
Yanki, frantsesa, italiarra,
denak aurpegia zuri;
hainbeste jende ta kazetarik
ni jartzen naute urduri:
egin diguten harreragatik
Hollywood dela dirudi».

*(Eskenatokiko jendeak ez dio kasurik egiten, zarataka daudela-ko. Mutilak kantatzen duen artean eskenatokia areto bat bihurtzen da, prentsaurreko batetarako prestatzen dutelarik: autoa poliki ateratzen dute, mahai bat, oihalez estalia, jartzen dute eta zoluko mar-
rrak tapizez estaltzen dituzte).*

AUTOESTOPISTA

(Berriro antzertokiko jendeari)

«Guztiak ume bihurtuz, honek
dirudi Disneylandia.
Banoa, zeren niretzat ez da
hemengo zoramendia;

*(Eskenatokiaren ezkerraldera doa, eta han geratzen da, besteen
barrunbaren aurrean. Kantari darraio)*

Batzuk garrasi, besteak bultza,
hau da, jaunak, durundia,
andre zuriak zergatik ote
hain arrakasta haundia?»

HOTELEKO GERENTEA

(Oihuka eta orroaka) Juan-andreak, ixilik guztiok! Argazkilari jaunak, erreportariak, publiko guztia: utz ezazue leku librea. Ixilik! Monsieur Dupont, signore Arropuzzi, Mr. Aberast, mesedez, pasa zaitzete mahaira prentsaurrea has dezagun.

(Dena isiltzen da. Erreportari, argazkilari eta ikusleak benetako ikuslegoarekin nahasten dira antzertokiko aurrekaldean; gerenteak pozik eta harrituta jarraitzen du).

HOTELEKO GERENTEA

Entzun ezazue, komunikabideetako jaunak eta entzule guztiak! Badakigu zergatik gauden hemen, zein den topaketa honen helburua, bai! Baina Maixu haundienak ere gurekin etorri dira, eta berai-
ek hobeto azalduko digute elkarketa honek izango duen garrantzia etorkizunerako! *(Eskenatokiko jendea txaloka hasten da. Erreportaria berriz urduri eta oihuka)* Ixil, lagunak! Ixil, mesedez!

Soberan ezagutzen dituzue estetika eta edertasunaren maixu-maistra sortzaileak! Soberan dakizue beraiei esker zibilizazioari bultzada ematea posible izango dela! Iraultza artistikoa, politikoa eta biologikoa, bai! (*Eskenatokiko eta ikuslego-jendea txaloka behin eta berriz hasi*) Hona hemen, gurekin, Kosmetika eta Moda-sortzailerik nagusienak!: Dupont, Arropuzzi eta Aberast jaunak! (*Hiru pertsonaia arrotzak seinalatzen ditu. Eskenatokiko jendeak eskuak txaloka apurtzen ditu. Horrez gainera antzertokiko jendea txalokatzerara animatzen dute. Hiru horiek eskenaren erdian daude, jendea agurtzen eta pozik. Andre zuria «fan»en artetik izenpeak sinatzen ari da eta erdi ezkutaturik geldituko da. Autoestopistak, ez-kerraldeko ertzean harriduraz begiratzen du dena; motxila astiro kendu eta eskenatokiaren mugan esertzen da, zangoak zintzilik eta itxura pasota eta jatorraz.*

Argiak, kosmetika-sortzaileak eta autoestopista argizatzen ditu).

V. ESKENA

Pertsonaiak: Frantsesa, italiarra, yankiarra, hoteleko gerentea, autoestopista.

(Hiru pertsonaiak aurrean daude eta eskenatikiko eta antzertokiko jendeari hitz egingo diete, antzertokiko jendeak ekintza honetan ere esku hartuko balu bezala. Hirurak batera hitz egiten hasten dira. Nahastu egiten dira. Azkenean frantsesa hitz egiten uzten dute. Pertsonaia hauek hitz egiten dutenean, beraien lurralde kutusa igartzen zaie, hainbat formulatan, nahiz doinuan. Eta afektazio haundiz, beti).

FRANTSESA

«Messieurs-dams», komunikabideetako lagunak eta jende guzti maitea! Dakizuenez, Moda zientzia bat da; zientziarik garrantzitsuenetarikoa, zeren gehien erabiltzen dena baita. Hainbat azterketa sakon eta hertsia beharrezkoa da Moda delako hori gorpuzteko. «Oui», «mes amies!» Zeuen begi eta bihotzen plazererako eratuak dauden eite, diseino, kolore, konbinaketa... atzean, makina bat ikasketa eta ikerketa dautza...

ITALIARRA

(Eskuak askotan eraginez, adierazterakoan) «Iustissimo!» Zientzia ez ezik, Artea ere bada Moda. Artea batez ere esango nuke nik, «amici». Eta, zein «bello» gure bizitza arteaz! Berari esker «donnaren» edertasun-eredua sublimatu egin da! Eta «donna-rekin», amorea eta «bita» osoa! *(Erdi kantaz! «O, sole mio...»)*

YANKIARRA

«Okey», lagun! *(Italiarrari bizkarrean eskuzarta maitagarria nahiz bortitza emanez. Italiarrari ez zaio gustatu kolpe hori, baina tira)* Hala ere ezin duzu beste zera ahaztu. *(Jende guztiari hitz egingez)* Modaren azpitik zenbat dolar izan ahal den pentsatu behar dugu, «of course»; Azkenean Moda negoziaketa bat da. Eta merkatal-«head» (bere burua kolpatzen du) dutenek, horiexek iraba-

zi... (*Eskenatokiko jendetzarengandik onartze zurrumurrua entzuten da*) «Moment, please»... «Exkuse me»... (*Isiltasuna berriz, eta jarraitzen du*) Une historiko honetan Modari «rol» berria sortuko diogulakoan gaude. Oraingoa «trailer» bat da, ez beste. Eta «trailer» honen atzean, «tomorrow» diru-aukera zabalduko zaizue. «Come on» gurekin, «every body»! (*Jendea txaloka hasten da. Autoestopista ahozabalik dago bere txokoan*).

HOTELEKO GERENTEA

(*Berriz haserre, zaratagatik*) Ixil, mesedez! Ez dezagun konpostura gal! Oraintxe beraien asmapen nagusia erakutsiko digute eta! (*Jendea ixiltzen da*).

FRANTSESA

(*Apaltasun faltsiaz*) Mende honetako zerbitzari apalok Modari egin diogun laguntza, «voilà»! (*Eta eskumaldeko atletik irretzen diren bost neska seinalatzen du. Bi neska 1.900.eko janzkeraz doaz —baina nahiko trakets, erridikuloak eta barregarriak— eta beste hirurak, maxi, erdi eta minigonaz jantziak. Jendeak jo eta ke txalotzeari. Autoestopista altxatu eta erdira doa. Maiseo garratzaz kanta egiten du. Doinua: 6 puntukoa «Haizak hi, mutil mañontzi» edo «Mendian gora haritza» erakoa).*

AUTOESTOPISTA

«Ez zaitetz irten kalera
artaburuen antzera,
askoz hobeto zaindu behar du gizonak janzkera.

Ilustratzeko aukera
gaur daukazue sobera:
pasa zaitetze moda mundura zer den ikustera».

(*Jende guztia oso pozik txalokatzen ari da, kritika zentzua hartu gaberik. Jarraitzen du*).

Nahiz eta izan gizona,
hori ez duzu problema,
kontseilu hauek jarraitu eta konpondu da dena:

azken modan dagoena
janzten baduzu aurrena,
izango zara zeure herriko eleganteena.

Inork ere, zuetarik
ez dauka ikasi barik
ongi orrazten, hobeto janzten, ume umetarik;

gaurko jakintsu ugarik
ez daukate zalantzarik:
munduan ez da hauen pareko beste problemarik».

(Behin eta berriz denon txaloak —antzerkitokiko jendeak hainbatetan egingo duela suposatzen da— eskuak apurtu arte. Autoestopista ihunki, bere txokora doa. Yankiarrak ez du txalorik egin. Pentsakor eta larritua dago, maxi, erdi eta minigonadun neskek begiratzekoan).

VI. ESKENA

Pertsonaiak: Lehengo eskenakoak.

(Yankiarrak frantsesari zerbait diotso belarrian, eta gero haiek italiarrari. Gona-neskak jo eta ke begira daude. Frantsesa neska hauengana doa, eta ordenaz aldatzen ditu: 1. maxi-gona, 2. ez mini-gona eta 3. ez erdigonaduna jarriz. Isiltasunaren erdian hiru pertsonaiek neskak behin eta berriro begiratu. Yankiarrak, ez dela ados buruaz adierazten du. Beraien arteko eztabaidan daudelarik, autoestopista barre algaraka. Jaiki eta erdira doa, bertsoez zera azaltzera. Lehenengo doinuaz).

AUTOESTOPISTA

Maxi, mini ta erdiko gona,
horra hor hiru neskato,
modisto haiek lana egiten
zuten beren boltsarako;

honela balitz gonon ordena
kaltegarri haiantzako:
urte batetik hurrengorako
probetxa zitezkelako.»

(Hemen, maxigonarengana doalarik, ikustezinezko artazi batzutat gona ebakiko bailuen egiten du, maxigonatik minigona egin ahal dela adierazteko, josiz eta konponduz gero. Autoestopista kantatzen ari den bitartean, italiarrak neskaren ordena berriz trukatu: 1. maxi, 2. erdi, 3. minia. Autoestopistak barre franko eginez, ezetza dio buruaz. Bertsoei darraie, eta antzertokiko jendea batez ere animatzen du ahoz, gonon ordena zehatza topatzearren).

«Maxigonaren moda mundura
zabalduz gero lehena,
hirulau mini egin zitezken
honela zapuztuz dena;

ahal zuten gehien xurgatzea zen
modagile haien lema:
negozia borobiltzeko
zein zen ordena zuzena?»

AUTOESTOPISTA

Betidanik moda-genio hauek etxekoandreengan pentsatu dute. Beraiek badakite ze trebeak diren gure amak: urte batetik bestera lan eta josteari ematen zaizkie eta moda zaharraz berria egin ahal dute. Sortzaile hauek (hirurak seinalatuz) datu historikoak ahaztuarren, zuhurrak izan dira konponketarik onartzen ez duten arauak asmatzeko. Ea, guztiok lagun ditzagun lehenengoz sortu zena zein zen oroit daitezen: maxi? mini? erdi...?

(Eskenatokiko baten bat animatzen da, eta erantzun txar bat botatzen du).

ESKENATOKIKO BATEN BAT

(Autoestopistari) Lehenengoz erdi, gero maxi eta azkena mini...?

(Autoestopistak errepikatzen ditu eta antzerkitokiko jendeari galdetu).

AUTOESTOPISTA

Zer uste duzue? Horixe ordena hobea? (Ikusleek ezetza adieraziko dutela suposatzen da) Ez, honela ez zen, lagun. Ea, beste bat!

(Hona heldurik, beste eskenatokikoren batek beste erantzun txar bat berriz esan dezake. Helburua, antzertokiko pertsonok esku sartzera ausar daitezen da, eta erantzunak eman ditzaten. Elkarrizketa laburraren ondoren —antzertokiko jendearen partizipazioaren arauera— autoestopistak lehengo doinuaz bertsoak jarraitzen ditu).

«Emakumeak onartu ohi du
modak ezartzen diona;
hori lortzeko lanean gogor
ari da hainbat pertsona
zuhurtasunez jokatzuz gero
kauxe da ordena ona:
lehena mini, ondoren midi
ta azkena, maxigona.»

(Hau kanta eta gero guztiok txalora. Yankiarra neskengana doa —beste bi neskak baztertuak geratu dira— eta autoestopistak esan-

dako ordenean kokatzen ditu. Ondoren, autoestopistarengana doa eta eskua bortizki ematen dio, eskerrak adieraziz. Guztiok oso pozik, autoestopista izan ezik. Bera, bere txokora doa erabat desanimaturik).

VII. ESKENA

Pertsonaiak: Italiarra, Yankiarra, Frantsesa, 2 neska Tirol antzera, 2 neska Hungariako ijito antzera, neska indiar antzera, oihaneko neska, neska militarra, 2 neska hippi, neska progrea, 2 punki.

ITALIARRA

(Beti bezala, beraren hitzak indartzeko eskuak sarritan eraginez) «Grazie!» «Molto grazie!» (*Txaloak bukatzen dira eta isiltasunean jarraitzen du*). «Benne», egia esan ez gara gai datu historiakoak oroitzeko zeren artistak baikara eta ez historiogileak. Eta, «amici», artistaren buruan, ametsak, koloreak, edertasunaren «mirakuloa», majia... Guk geuk jantzi ditugu izarrak, zerua pintatu, eguzkia asmatu, hodeiak diseinatu, itsasoa... (*frantsesak estula egiten dio italiarrari eten eta ohartzeko. Italiarra konturatzen da eta zerrutik jatsi*) A, bai, «perdonare» ezazuete! Lehen nioenez, generazio honetan unibertso osoko moda-kaminoak urratu ditugu. Hauek (neskak seinalatuz) exemplu batzu dira. Baina badakizue ze mundu honetako gauza guztiak gastatzen dira. Denbora, oh denbora traidorea! (*dramatikoki*) «La nostra vita» ez da «seculum seculorum» ere! (*Frantsesa bortizki estulka*) A, «bene»! Esan nahi dut ze edertasun moldeak kanbiatu behar dira «piano, piano»... baino «allegro allegro». (*Frantsesa eta yankiarraren gorroto-aurpegiak konturaturaz*). Bai, «Presto», «Andiamo!» (*Eskuzartak ematen ditu eta 5 neska ezkeraldeko atetik irtetzen dira. Berehalaxe, Tiroleko musika entzuten da*). Geure inspirazioa lurralde askotako herri-janzkeratik etorri zitzaun...

(Lurralde horretako janzkeraz 2 neska beltzaran eta irribarrez ageri: hegada handiko gona eta mahukak, eta amantala loreduna. Ez dira herrijantzi zehatzak, modernizatuak baizik. Oraingo zapata garai eta poltsa daramatzate, eta «modeloak» bezala higitzen dira, banan banan pauso batzu aurreratzen dituzte gerriak kulunkatzera-koan, eta jiroa egiten dute. Jendeak txaloka jo eta ke. Moda-ibiladia bukatu ondoren alde egiten dute).

ITALIARRA

«Piu bello!» «Ma» gehiago falta zaigu.

(Hungariako musikaz bibolinak entzuten dira. Hungariako ijitoz jantziriko neska beltzaranak irtetzen dira: gona luze loreduak, sorbaldetan txal iluna eta buruzapian bitxi ugari zintzilik. Jendea txaloka ari den bitartean, lehengoek bezala egiten dute eta berriz irten. Orain ekialdeko musika entzuten da, eta indiarraz jantziriko 2 neska beltzaran eta sofistikatuak ageri: tunika luze koloreduna samatik oinertara. Lehengoek bezala egiten dute).

YANKIARRA

(Italiarrarengana doa eta baztertzen du. Italiarra ez da ados, baina tira) «Beautiful, of course!» Baina goazen aurrera! (*Jende guztiari*) Ekialdeko kutsuak probetxatu genituen, halere laster beste merkatu berri bat zabaltzera ausartu ginen. O «yes!» (*Jendeari begi-keinua egiten dio*) Benetan «wonderfool» dolar-txaparroia! (*Zeruari begira, euria bailegoen*).

FRANTSESA

Azterketa franko egin genuen, eta jenderitzia aldatua zegoela atera genuen ondorioz. «La femme» eta beraren askatasuna! Ikerketa hauek egin eta gero, eredu aproposak sortu genituen. «Voilà».

(Oihanekeo zaratak eta Afrikako musika entzuten da. Leopardozko gerripekoz jantzitako andre ilegorri, sofistikatu eta beltzaran bat agertzen da, latigo bat eskuan eta puro bat erretzen duelarik. Keinu dominatzaileaz bere janzkera erakusten du, eta berehala irten. Musika militarra entzuten da, eta militar-janzkeraz beste bat: jake iluna, eta sorbalda kuadrodonean militar-sinuak, gona zuzen eta bota garaiak. Erretzen datorrelarik, ibilaldia aproposa egin eta alde).

FRANTSESA

(*Irribarrez*) «O, la femme!» O, la, la, la! Politika eta ideologia mugimenduetan esku hartu nahi du. Eta horretarako, hona hemen hainbat ideia.

(Musika-nahastea entzuten da, tarteka-marteka: «folk», «jazz» eta «rok» gogorra. Folka entzuten denean hipiz jantzitako bi neska beltzaren ageri, ile luzez, lorez eta begirada ilunez. Ez dute modabilaldirik egiten. Jende guztia indiferentziaz begira eta zoluan eseri «porro» bat liatzeko. Jazza entzuten denean neska «progre» bat irtetzen da. Ile kizkurtu eta txarto orraztua. Betaurrekoak. bakero-freakak, plaiarak eta txamarra. Jendea eta hiptak begiratzera koan asperkeinua eginez antzerkitokiko jendeari bizkarra ematen dio,

galtzerdin batetik Dukados-paketea atera eta poltsikoan daraman panfleto bat irakur eta erretzen hasten da.

Erroka gogorra entzuterakoan bi punki agertzen dira. Kate ugarriz eta ile bereziaz. Jendeari jaramonik ez, eta bata bestearen aurrean kokoriko jartzen dira txoko batetan.

Jende guztia txaloka jo eta ke. Autoestopista pozago dago).

(Hiru pertsonaia arrotzak elkartzen dira eta jende guztia agurtu. Gero, keinu bat eginez, hipi, progré eta punkiak irtetzeko agintzen dute, baina hauek jaramonik ez. Urduriago daudelarik, agindua berresaten dute, alferrik. Frantsesak polizia deitu, eta et orri ondoren horretako bik modu txarrez derrigortzen ditu. Modu txarrez ere irtetzen dira desfile-pertsonaia horiek. Jendea behin eta berriz txaloka. Toki berebean datzan autoestopista, aho zabalik jarraitu).

VIII. ESKENA

Personaiak: Frantsesa, Italiarra, Yankiarra, Andre zuria, Autoestopista, Komunikabideetakoak.

FRANTSESA

(Gutziz hunkitua) «Messie-dams», komunikabideetako eta jende guzti maitea! Orain arte ikusi dituzuenak, kate baten mailak ez beste izan dira. Eta azkenean geure lanik hoberena aurkezteko une desiragarria heldu zaigu. Ez da soilik janzkera berririk, ez! Estetika —molde eta edertasunaren eredu baizik. Oinarria Grezia eta Erroma Zaharrean datza. Eta ondorioa, Etorkizunerako begira. Zuekin, Andre zuria!

(Baztertua izan den Andre zuria erdira doa. Autoestopista harritua bere lekutik jaikitzen da. Norbaitek maila bat ekarri eta hona igoten da neska. Bere tunika zuria kendu eta bainujantziatz geratzen da. Bere gorputza, beste pertsonaia beltzaranen erdian are zuriago nabari da. Jendearengandik onartze-zurrunmuruak).

ITALIARRA

(Liluratuta) Edertasuna elurra bezain «bianca» hemendik aurrera Birginaren kolorea! Azuzena. Lilia, amets-usoa...! Zuria!

YANKIARRA

(Italiarraren hitza etenez, beti bezala) Bai, ideia zuria, diru berrria!

(Erreportariak andre zuria inguratzen dute: argazkiak eta telebista behin eta berriz. Argia apurka apurka amatatzen ari da, eskenatokiko jendea ilunduz barrunbaren artean. Autoestopista soilik argizatzen du. Honek, eskenatokiko jende eta mugagabeko zaratak entzuteari ematen dio, betiko aho zabalik).

IX. ESKENA

Pertsonaiak: Autoestopista.

.....

(Zaratak amatatuz doaz, eta autoestopista goibela eskenatokiaren aurreko aldean jartzen da, antzertokiko jendeari begira. Beraren atzean ezin da ezer ikusi. Eskenatokiko jende guztia irtetzen da eta dena ixilik geratu. Bertso batzu kantatzen ditu «Haizak hi, mutil mañontzi» edo «Mendian gora haritza» erakoaz. Malenkoniaz eta minez beterik adierazten ditu).

AUTOESTOPISTA

«Moda pasatuz ari da,
berriz etorriko dira;
urteetan zehar ematen dute makina bat bira.

Denok arretaz begira
beltzaranaren dizdira,
baina erabat aldatuko da beltzetik zurira.

Hauxe omen da kultura,
negozioa gustura
egiten dute zerbait aldatuz kanpoko itxura:
komeni zaien modura
ezartzen digute muga:
orain artean bel-beltza zena zuri bihurtu da.

Modako hainbeste arau,
ez dira hiru edo lau,
etengabeki iraultzen dira eta txunditzen nau.

Mila bira egun ta gau
emanez dabil mundu hau
ta hala ere betiko leku barborean dirau.

Ia falta zaigu jana,
baina jazteko afana,
azken modaren inperio hau sartu da gugana.

Ez etorri niregana,
hauxe da falta zaidana,
zer ardura zait azal zuria edo beltzarana?

Andre zuriak baleki
maite izango dut beti
hona heltzeko sarrera berak baitzidan ireki.

Kaminoetan hobeki
nabil emeki, emeki
neure bidea segi dezadan axolagabeki»

(Isiltasuna probetxatuz, norbaitek prentsaurreako mahaia eta tapiza kendu ditu; eta orain, haserako kaminoa plastikazko tirketaz seinalaturik dago).

Autoestopista, motxila utzi duen txokora doa. Motxila jarri, eta lehengo auto-zaratak entzuten diren bitartean, auto-stop keinuz egiten hasten da. Aurrerantza joan nahi du, hauxe da, antzertokiko jendea dagonerantza. Erdian jarri, eta eskenatokitik jatsi egiten da. Eta antzertokiko ikusleen artean desagertzen da, auto-stop eginez eta aurrera).

TELOIA

Lehenengo ekitaldiaren amaiera

BIGARREN EKITALDIA

I. ESKENA

Pertsonaiak: Etxezain nagusia, Etxezain bat, Beste etxezaina, Autoestopista, Yankiarra, Frantsesa, Italiarra.

(Teloia altxatzen denean egongela aberats eta zabal bat ikusten da, non jai bat hasiko baita. Zoluak, marmorezkoa dirudi eta kua-dratu zuri eta beltzez egina. Eskenatokiko hondoan goiko pisura igoten den eskilara zuria marrazturik dago, palmera edo landare tropikalekin aldeetan. Kriseilu dotore eta haundi bat sapatitik zintzilik. Ertz batetan mahai txikia, txanpan botila eta kopekin. Espazio haundia beharko denez gero ez da gauza gehiagorik komeni.

Ezker eta eskumaldeko ateetatik hiru etxezainek gauzak prestatzen zeharkatzen dute: batek, kopa eta botilak daramatza, besteak kanape-erretilua, hurrengoak aulkiak...)

.....

ETXEZAIN NAGUSIA

(Erlojua begiratuz) Hogei minutu besterik ez dugu jaiia hasi orduko. Dena prest utzi behar da berehala.

ETXEZAIN BAT

Ia prest dago dena.

BESTE ETXEZAINA

(Sartuz) Aizu, jauna, hor, atean, gazte bat daukat.

ETXEZAIN NAGUSIA

Gazte bat daukazula? Gonbidatua al da?

BESTE ETXEZAINA

Bai... baina...

ETXEZAIN NAGUSIA

Ez dago bainerik. Gonbidatua bada, sar erazi ezazu, hor kokilduta egon gabe.

BESTE ETXEZAINA

Baina, oso arraroa da, ez dator egoki jantzita.

ETXEZAIN NAGUSIA

Ah, gorbata falta zaio, ala zer? Nola dator jantzita, bada?

(*Autoestopista sartzen da, eskuan gonbite txartela eta sorbaldan motxila dakartzalarik.*)

BESTE ETXEZAINA

(*Autoestopista seinalatuz*) Honela, jauna.

AUTOESTOPISTA

Kaixo! Hemen al da jai zuria?

ETXEZAIN NAGUSIA

(*Eskutik txartela hartu eta ongi miatzen duen artean*) Joxe Perez jauna, ezta? (*Mesfidantzaz autoestopistari.*)

AUTOESTOPISTA

Bai. Etxean Pepe deitzen naute, baina lagunentzat Joxe naiz.

ETXEZAIN NAGUSIA

Eser zaitetz, mesedez.

AUTOESTOPISTA

(*Besteen harriduraz konturaturik*) Nigatik segi ezazue lasai zeuen berriketa. Ni Andre zuriak gonbidatu nau. Haren laguna naiz eta hau ekartzeko agindu zidan. (*Motxilatik kutxa bat ateraz.*) Ikus-entzuteko materiala da, badakizue, diapositibak eta hohelakoak.

ETXEZAIN BAT

Zerbait hartu nahi izango zenuke, jauna?

AUTOESTOPISTA

Eh? Ah, ez ez! (*Kanape-erretilua begiratzen du.*) Ah, gauzatxo horiek dohanik ematen dituzue?

ETXEZAIN BAT

(*Harrotasun haundiz.*) Jakina!

AUTOESTOPISTA

Orduan, zertxobait hartuko dut. (*Kanapeak hartzen ditu eskuak bete arte.*)

ETXEZAIN BAT

(*Haserre antzera.*) Nahiko hartu duzu, jauna?

AUTOESTOPISTA

(*Eskuetan ez zaio gehiagorik sartzen.*) Bai, bai! Oraingoz bai, eskerrikasko.

ETXEZAIN NAGUSIA

(*Interesaturik.*) Orduan ongi ezagutzen dukezu Andre zuria delako hori...

AUTOESTOPISTA

Noski, bai, laguna dut.

ETXEZAIN NAGUSIA

Filme horik gaurko jai honetan eta hitzaldietan erakusteko bide dira...

AUTOESTOPISTA

Bai, neronek atera ditut, zerbait ulertzen dut gauza hauetaz eta...

ETXEZAIN NAGUSIA

Hona hemen munduko gizon bat! (*Autoestopistari sorbaldan eskua ezartzen dio. Kanapeak apur bategatik erortzen zaizkio.*)

AUTOESTOPISTA

(*Alde guztietatik begira, nori esan dion ulertu ezinik.*) Nori esan diozu, jauna?

ETXEZAIN NAGUSIA

Zeuri. Ez zara, ba, bidaiari amorratua?

AUTOESTOPISTA

Jakina! Autoestopista naiz eta.

BESTE ETXEZAINA

Eta zer da hori?

ETXEZAIN NAGUSIA

Auto-stop eginez leku guztietara doana. Esaidazu, gizon, Euro-patik zehar sasoi honetan ibili zara?

AUTOESTOPISTA

(Jan-bitxiak janez.) Bai, zoritxarrez.

BESTE ETXEZAINA

Zoritxarrez? Zer ikusi duzu hortik? Guk, hemen beti sarturik, ez dugu izan astirik mundua ikusteko. Gainera, moda berriaz dena zeharo aldatu dutela esan digute. Esaiguzu, gizon, zerbait berezirik edo ikusi duzu, azal diezaguzun?

AUTOESTOPISTA

Zerbait berezirik? *(Barreka ari da. Barre tristez.)* Dena da berezia. Mundua hankaz gora bihurtu da. Nahi duzue ikusi nola? Hementxe, egin ditudan filminetan ikus dezakezue ongi. *(Eta motxilara doa, zinetresna txiki baten bila.)*

ETXEZAIN BAT

Ederto! *(Beste etxezainari.)* Ekar itzazu arin aulki batzu! Azkenean ezagutuko dugu mundua!

BESTE ETXEZAINA

Bai, oraintxe! Ai, ze urduritasuna! *(Badoa. Aulkiak ekarri eta zalapartaz jezartzen dira.)*

(Bien bitartean autoestopistak tresna prestatu du, eta orma zurian —eskileraren ondoan gelditzen den tokian— irudiak projektatzen ditu. Berak azalduko dituen gauzak filminetaz edo ikusiko dira.)

AUTOESTOPISTA

Hau, modan dagoen herri bat da. *(Mendi baten argazkiak ikusten dira. Musika egokia.)*

ETXEZAIN BAT

Oso toki malkartsu eta ederra dirudi. Eta zenbat zuhaitz!

ETXEZAIN NAGUSIA

Modan dagoela esan duzu?

AUTOESTOPISTA

Uf! Bai! Ez zegoen modurik sartzeko ere. Halako jendetza zegoen!

ETXEZAIN NAGUSIA

Ya! Eta non dago jendetza hori? Ez da inor ikusten.

AUTOESTOPISTA

Argazki hauek goizean hartu nituelako. Guztiok lotan zeuden. Orain gauez ikusiko duzue (*gaueko iluntasunean, eite zuriz beterik ikusten da. Jendearen zalaparta*). Begira multzo zuriak. Horiek guztioriek pertsonak dira.

ETXEZAIN GUZTIAK

A!!

ETXEZAIN BAT

Guztiok goizez lo eta gauean irten! Horiek bai direla oporrak!

AUTOESTOPISTA

Oporretan ezik, hainbat tokitan egunero goizez ere lo egiten dute. Eta gauetan bizi. Hori dena da zuritasuna mantentzeagatik.

ETXEZAIN BAT

Orain ulertzen dut. Gauaz irtetzen badira, ez dute eguzki-izpirik hartuko, ezta? Hau azkarra!

ETXEZAIN NAGUSIA

Ya. Baina ez dudana ulertzen lo non egin ahal duten da. Urbanizatu gabe dago oraindik herri hori?

AUTOESTOPISTA

Bai zera! Luxo eta komodidade guztiak ditu!

ETXEZAIN NAGUSIA

Ba, ez dut ulertzen. Gaueko argazki hauetan ez da ezer ikusten, baina haserakoetan nik ez dut herririk nabari izan.

AUTOESTOPISTA

(*Haserako argazkiak erakusten ditu. Mendi bat ez beste.*)
Hauetan diozu?

ETXEZAIN NAGUSIA

Bai. Non dago etxerik?

AUTOESTOPISTA

Hortxe.

(*Guztiok hurbiltzen dira eta ezer topatu ez.*)

AUTOESTOPISTA

Ez dituzue zuloak ikusten? Horiek dira etxeak.

ETXEZAIN BAT

Zuloak? Zuloetan etxebizitza dute?

AUTOESTOPISTA

(*Irribarrez.*) Argi dago aspalditik ez zaretela hortik ibili. Oraingo etxebizitzak ez dira lehengoak bezalakoak. Jendeak, eguzki-izpietatik alde egite eta zurtasuna hobeto gordetzearren etxe ilunak maite ditu. Zenbat eta ilunago hainbat eta hobeto. Hemen-go urbanizazioa, esate baterako, «Zirkilu» deitzen da. Eta mendihaitzuloetan egina dago.

ETXEZAIN BAT

Baina, honela geure arbasoak bizi ziren! Eta orain hori da modernoena? (*Autoestopistak buruaz baieztatzen du.*)

BESTE ETXEZAINA

Bai estrainoak direla oraingo aberatsak! Baina segi, segi! Zer gehiago ikusi duzu?

AUTOESTOPISTA

Hemen, ilargitoki bat duzue.

ETXEZAIN BAT

Ez da ezer ikusten, hain ilun dagoenez...

BESTE ETXEZAINA

Zer da esan duzun toki hori?

AUTOESTOPISTA

Ilargitokia, ilargi-bainoak hartzeko tokia da. Eguzkitoki edo solariumaren antzerakoa.

ETXEZAIN NAGUSIA

Ya. Eta nola hartzen dute ilargia?

AUTOESTOPISTA

Oraintxe erakutsiko dizuet. Baina tresna hau ataskatu egin zait edo... (*zine-tresna aurrera ez doala.*)

BESTE ETXEZAINA

(*Maltzurkeriaz, eskuak marruskatuz.*) Orain datorkigu hobere-na! Ikustekoak izango dira eder horiek larru gorritan!

AUTOESTOPISTA

Badago! (*Zine-tresna aurrera doalarik, zuriz estaliriko eite zu-riak erakusten ditu.*) Hona hemen zeuen galantak!

ETXEZAIN BAT

Horiek andreak dira? Ez genekien mairuak zirenik!

AUTOESTOPISTA

Ez dago mairurik. Moda berria da eta.

BESTE ETXEZAINA

Bai hutsopila! Eta nola ahal dute ilargirik hartu?

AUTOESTOPISTA

Lehenengoz, krema babesgarriak soingainean jartzen dituzte, badaezpada zurtasun haundiegia hartzen duten. Geroxeago, zuri-gailu ugariz kutsatu, lehenbaitlehen margo aproposa lor dezaten. Eta hara doaz, mendi garaietara edo leize sakonetara, zuloetara... ilargia hartzera. Ilargi-izpi infrazuriak zuzen hartu beharrean, jakina, iluntasunean zehar hartu behar dituzte...

(*Etxezainak aho zabalik daude.*)

ETXEZAIN NAGUSIA

Ya.

AUTOESTOPISTA

Bainua hartu ondoren, after-ilargi hartzen dute...

(*Atetik yankiarra dator. Azkena entzun du.*)

YANKIARRA

«After-moon», «Af-ter-mo-on»! (*Hitzak berrindartzen ditu.*) Eta krema deshidratagarriak, larrua lehortzeko, «mister». Salketa borobila egin dugu produktu hauetaz.

(*Etxezainak izuz jaiki eta beraien zereginetan urduri hasten dira.*)

YANKIARRA

Etxezainei.) Lasai, lasai, «my dear misters»! Kultura eta zibilizazioa denontzat da gauza ona. (*Autoestopistari.*) Jarrai, «please», bildurrik gabe.

AUTOESTOPISTA

(*Haserre.*) Hau da dena. Bukatu egin dut. (*Zine-tresna amatazen du.*)

YANKIARRA

«Ou, nou». Hori da «impossible»! Hainbat datu interesgarri falta da. Zientziaren azken asmapenaz zerbait bildu duzu? Zuritasuna lortzeko gai berria bilatu dute: patata.

ETXEZAIN NAGUSIA

(*Harritua.*) Patata? (*Aztoratua, sartu delako.*) Oh, parka nazazue, jaunak! Baina oso arraroa iruditu zait. Neure denboretan belztutzeko azenarioa asmatu zutenez gero...

YANKIARRA

Eta zuritasun osoa ez da segurtatzen pekak eta orainenak kendu arte. Arazo hori tresna elektrikoaz garaituz doa...

AUTOESTOPISTA

(*Haserre.*) Eta zer diostazu moda berri honetaz gertatzen diren istripuetaz?

YANKIARRA

Ez dakit zeri buruz hitz egiten ari zaren, «my friend». Ah, bai! Zenbait jende mendietan hil dela aipatzen duzu?

AUTOESTOPISTA

Ilargi-bainuak hartzerakoan sarritan basapiztiek klaskatu, suge harriskutsuek zizt egin, hotz eta hezetasunaz izozturik gelditu, iluntasunaz amildegietan jausi... Eta alditsuenak, azken kasketaldia ilargi-bainuak hartzeko itsas-hondoko haitzuloetara joatea izan denez, hainbat itto edota itsas-animaliek hilak izan dira. Zer diostazu horretaz?

YANKIARRA

O, «yes»! Zibilizazio eta aurrerapenak beti martiri eta heroiak ditu. Lauda ditzagun pertsona mirezgarri hauek, betikoz! Goian beude! (*Eta ilunki makurtzen du burua, isiltasunaren erdian.*)

ETXEZAIN GUZTIAK

(*Berdin eginez.*) Goian beude!

(*Antzertokiko jendea begiratzen du autoestopistak, bere ezintasunaz batera adierazteko.*)

AUTOESTOPISTA

(*Haserre.*) Tresna hauek batzargelara eramatera noa. (*Etkezain nagusiari begira.*)

ETXEZAIN NAGUSIA

Hemendik, jauna. (*Eskumaldeko atea seinalatuz.*)

ITALIARRA

(*Autoestopista sartzen denean bera sartu.*) «Mamma mia!» (*Erlojua begiratuz.*) Garaia da eta geu, beste gonbidaturik ez da oraindik heldu!

YANKIARRA

«Come on!» Lasai zaitetz! (*Txistuka mahaira doa betiko koparen bila.*) Denari utzi behar zaio heltzen, txirotasunari izan ezik. (*Burrunbaz txanpan-botila zabaltzen du.*)

ITALIARRA

(*Zarataz asaldatzen da, beste aldera begira zegoelako.*) Jesus, hau ikaraldia! «Ma», nola nahi duzu lasai nadila, «si» zarata horiek egiten dituzu? Ah! Hau «desesperationea!» (*Yankiar sutsuki edateko era nazkaz begiratzen du.*) Eta edaten hasi zara besteak etorri baino lehen! Ez dut «kapiskatzen» zure portaera.

YANKIARRA

(*Italiarraren doinu eta esku keinuak imitatu eta irrigarri utziz.*) Baina zer gertatzen zaizu, «amico mio». Ez dago zergatik larritu. Gure esperientziak arrakasta izugarria izan du eta ez da oraindik denbora luzerik igaro. Europa zuriz estalirik duzu. Eta laster, mundu osoa ere horrela ikusi ahal izango duzu.

ITALIARRA

(*Imitapenaz zerbait haserre.*) Beno, baina jai hau geure ohorez antolatu dutela suposatzen da. Eta zergatik ez dator inor! Ez dakit «per ché» baina neure barne muinetan zerbait eragiten da... hone-la... (*Eskuaz buru gainean jiroa egiten du.*) «Má», «ché cosa è»?

YANKIARRA

«Come on, my little boy», ba, ba, ba! Tentelkeriak!

FRANTSESA

(*Kezkati agertzen da.*) Etzazue pentsa dena hain polit eta «trés facile» denik, «come vous dites».

ITALIARRA

Zer, ba, berri txarrik al da?

FRANTSESA

Txarrenetarikoak! Gutun multzo ikaragarria jasotzen ari gara,

denak ari zaizkigu protesta gogorrek joaz. Hona hemen ohar zaitetzen aukeratu dudan bat. (*Eskutitz bat atera eta zabalduz.*) Honela dio: «Gure belaunaldiko Moda eta Kosmetikoen hiru sortzailerik nagusienei: Guk Moda eta Kosmetika-saltzaile beltzaranok, geure senean gaudelarik, baita buru eta gorputz-ahalmen guztiez gozatuaz...» (*frantsesak burua altxatu eta azaltzen du*). Eta parentesi artean «oraindik behintzat» dakar. (*Irakurtzeari ematen dio.*) «... zera oharterazi nahi duzuegu: zeren zeuen ideia berriak direla kausa —hau da, derrigorrezko edertasun zuria— jenderitzia aldatuz joan da eta momentu honetan ez du inork belztasunik maite. Uler dezakezueenez, urte honetako aurreikuspenak hankaz gora joan zaizkigu eta geure biltegiak hainbat gauza salezinez beteak ditugu. Esate baterako, hondartzarako ekoizpenak: zapi, zein betaurreko, beltzarankailuak, kremak... makilaje eta aurpegia pintatzeko tresna guztiak zaharkitu egin dira. Eguzkitako, aulki, hamaka, erropa aldatzeko etxola, flotagailu, kortxo... edo eta bainujantzi, sandalia, poltsa, buruzapi zein janzkera tradizional osoa. Lonja haundietan luxozko yate eta kiroluntziak pilatzen dira igertoki hondatuen artean...»

Eta abar, ate abar eta abar...

YANKIARRA

Gixarajoak! (*Txanpaina lasai edanez.*)

FRANTSESA

Orain dator garrantzitsuena: «horrexegatik ideia berri hauen aurkako demanda judiziala inposatu ondoren, antzarrak ferratze-
ra joango zarete eta gu baketan utziko gaituzuelakoan, oharteraz-
ten dizuegu lehen baitlehen gauza guztiak lehen senera itzul ditza-
zuen, guztiok hobeto bizi ahal gaitezen». Eta azkenean, hamaika
mila saltzaile beltzaranen izenpea, nortasun-txartelaren zenbaki
eta guzti. «Mon dieu, mais, qu'est ce que c'est?»

ITALIARRA

(*Yankiarrari.*) Ez zegoela zergatik kezka, eh? Banekien nik.

YANKIARRA

Hori ez da ezer. Bide berriak zaharrak baztertzen dituzte eta salketetan «stok» izugarriak sortzen dira. Oso naturalak dira horien arazoak. Gainera, guzti horien hondatzeak geure garaipena dakar. Zibilizazio eta aurrerapenaren martiriak ditugu hauek ere! (*Gutuna frantsesari eskuetatik kenduz eta zatikatuz.*) Goian beude!

ITALIARRA ETA FRANTSESA

Bai, goian beude!

II. ESKENA

Pertsonaiak: Etkezain nagusia, Italiarra, Frantsesa, Arkitekto beltzaran bat, beste Arkitekto beltzarana, Arkitekto zuri bat, beste Arkitekto zuria.

.....

ETXEZAIN NAGUSIA

(*Eskumaldeko atetik ageri eta frantsesa, italiar eta yankiarren-gana jotzen du.*) Jaunak, gonbidatuak etortzen hasiak dira eta Areto Nagusia ia beterik dago. Nahi duzuenean... (*Bera sartu den atea seinalaturik.*)

ITALIARRA

«Stupendo»! (*Beste bi kideei.*) «Andiamo»! Goazen hara!

FRANTSESA

(*Eskuak marruskatuz.*) Lehenbaitlehen, «messiers»...

(*Frantsesak eta italiarrak alde egiten dute eskumaldetik. Yanki-
kiarra, beste kopa bat edateko pixkatxo bat gehiago gelditzen da.
Alde egiteko dagoenean, bi gizon beltzaran eta urduri ezkeraldeko
atetik sartzen dira.*)

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(*Bere lagunari, yankiarra seinalatuik. Hunkipenaz hitz egiten
dute beti.*) Oh! Hor dago horietako bat!

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(*Berdin hitz eginez.*) Ah! Goazen, ba, berarekin hitz egitera!

YANKIARRA

Niri dioztazue, jaunak?

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Bai, bai! Zurekin hitz egin nahi dugu.

YANKIARRA

(*Begiak zerura begira, eta etsipen-hasperena botaz.*) «Ou, nou!»
(*Etxezainari.*) Etsaiezu nire kideei laster joango naizela, «please».
«Because» gizon hauekin hitz egiten geldituko naiz.

ETXEZAIN NAGUSIA

Nahi duzun bezala, jauna. (*Alde egiten du.*)

YANKIARRA

Zertaz nahi duzue hitz egin?

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(*Bere lagunarengandik nahiko urrun jarritz.*) Gu gara...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...etxegileak...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...arkitektoak, hobeto esanik...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

Hainbat urbanizazio asmatu dugu...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...orain direla urte batzu...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...hau da, lehengo ereduari begira...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...hau da, moda zaharraren arauera...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...Badakizu etxeak ez direla berehala egiten

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

O! Ez! Lehenengoz ideia hartzen da...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...gero, lurra aztertu...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...jarraian neurriak hartu...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...finanziazioa lortu...

YANKIARRA

(Ezeroso itxuraz, tenis-partiduan bailitzan egon delako: bati zein besteari begira.) «Well, well!» «That's enough!» Soberan dakit hori guztiori! Baina niri ze axola zait?

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Parka, jauna...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...baina gure arazoa...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...zuregatiko arazoa da...

YANKIARRA

(Eten nahi du, alferrik. Eta tenis-partiduan jarraitzen du.) Ya! Ulertzen dut...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Zeren moda berri honek...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...hain arrakasta haundia izanik...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...urbanizazioak eginak izan ditugunerako...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...zaharrak gelditu zaizkigu...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...esan nahi dugu, berriak izanarren...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...zaharrak dira...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...berri zaharrak...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...edo zahar berriak...

YANKIARRA

(Gutziz haserre.) «Shut up!» Badakit! Dena ulertzen dut! Baina banan-banan hitz egin nahi duzue? Desorientatu egiten naiz!

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Oh! Parka, jauna...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...banan-banan...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...hitz egingo...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...dugu...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

aurrerantzean...

YANKIARRA

(Eskuak burura daramatzalarik.) «My God!» Zoratu egingo naiz!

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Guk eginiko etxeak...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(Pozaz.) ...hondartzaren alboan eraiki ditugu, noski!

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(Penaz.) ...baina jendeak ez du hondartzarik maite...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(Pozaz.) ...eta herri eguzkitsuetan...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(Penaz.) ...Baina herri euritsu eta hotzak daude modan...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(Pozaz.) ...etxe argitsuak, leiho zabal eta ugarietaz...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(Penaz.) ...baina orain, etxe ilun eta hertsiaik dira atseginak...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(*Pozaz.*) ...kirol-zelai eta zabalune berdeetat inguratirik zeuden gure urbanizazioak...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(*Penaz.*) ...baina jendeak ez du nahi aire zabalean kirolik egin. Gela hertsia nahiago ditu, zurtasuna gordetzeagatik...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(*Pozaz.*) ...Gure etxeak hiri edo herri nagusietatik urrun daude...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(*Penaz.*) ...Baina orain, gaueko zalaparta gustatzen da: taberna, dantza-toki, bingoak... (*salto eta mugimendu arinak eginez*).

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

(*Pozaz.*) ...eta...

YANKIARRA

(*Desesperatua.*) «Go away»! Nahikoa entzun dut!

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...horrexegatik etorri gara...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

Porrot eginak gaude...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

...Geure diru guztia honetan erabili dugu...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...Urbanizazio salezinetan...

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Eta orain, zer egin?

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

Nora joan?

(*Yankiarrak jaiki eta mehatxuz haiengana doa.*)

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

O! Galduak gara...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

A!... galduak!

(Noiz eta orduantxe Aretoko gelatik txalo-zaratak entzuten dira. Aretoko atea zabaldu eta bi pertsonai zuri agertzen dira. Yankiarrak bere gorrotoa kontrolatzen du, eta pertsonai zuriengana lasaiago doa.)

YANKIARRA

Ezagutzen zaituztet, zorionez?

ARKITEKTO ZURI BAT

(Hozki.) Ez.

YANKIARRA

Ut看 iezadazue neure burua aurkez diezazuedan. Ni, Kosmetika eta Moda berriaren sortzailetariko bat naiz. *(Eskua luzatzen dio.)*

ARKITEKTO ZURI BAT

Plazer bat da guretzat zu ezagutzea. *(Eskua ere luza eta hestutu egiten du.)* Gu, arkitekto zuriak gara.

BESTE ARKITEKTO ZURIA

Horrela da! *(Honek ere eskua luza eta hestutu.)*

YANKIARRA

(Askosaz lasaiago.) Hau bai dela haundia! Hain zuzen ere, arkitekto beltzaran batzu hemen geurekin ditugu. *(Arkitekto beltzaranak seinalaturik.)*

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

(Oso hunkitua.) O! Hau bai dela haundia! *(Eskua luza eta bortizki hestutu egiten die.)*

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

A! Hori bai dela! *(Berdin eginez. Bi bikoteek elkar agurtzen dute, zein hozki, zein hunkiturik.)*

YANKIARRA

(Arkitekto zuriei.) Eta, zer? Hitzaldia interesgarria izan duzue?

ARKITEKTO ZURI BAT

(Betiko hoztasunaz.) Bai, oso.

BESTE ARKITEKTO ZURIA

Horrela da.

YANKIARRA

Zertaz hitz egin da?

ARKITEKTO ZURI BAT

Etxegintza berriaren abantaila eta aurrerapenetaz.

BESTE ARKITEKTO ZURIA

Horrela da.

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Abantaila...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...eta aurrerapenetaz?

YANKIARRA

(*Arkitekto beltzaranei, oihuka.*) Bai, horretaz! (*Lasaiago, zuriei.*) Eta nolakoa izan da?

ARKITEKTO ZURI BAT

Garrantzitsua, oso. Guk geuk, geure lurralde nordiarretan izan ditugun esperientzi eta teknika berriak azaldu ditugu. Dakizuenez gure lurra betidanik baztertua izan da turismo mailan. Orain arte baztertua, baina hemendik aurrera hartu duen garrantzia aipatze-koa da.

BESTE ARKITEKTO ZURIA

Horrela da.

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

O!

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

A!

YANKIARRA

Isil zaitezten! *Zuriei, lasaiago.*) Eta, ondoriorik atera duzue?

ARKITEKTO ZURI BAT

Moda berria oinarria dela ondorioztatu dugu. Berari esker gure lurra orain arte ezagutu ez dugun mailara altxatu dugu. Kon-

taezinezko posibilitateak zabaldu zaizkigu. Eta datu batu aporter-
tzearren «iglu» urbanizazio berriak asmatu ondoren izan dugun
arrakasta hor dago.

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

O! Iglu urbanizazioak?

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

A! Zer dira iglu urbanizazioak?

ARKITEKTO ZURI BAT

Dakigunez, iglua izotz-etxebizitza da. Hotz eta eguzki-izpien
aurkako aproposena. Horrexegatik Moda berriaren eredu.

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

O!

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

A!

YANKIARRA

(*Arkitekto zuriei.*) «Beautiful», benetan! (*Mahai txikira abia-
tuz.*) Hau ospatu egin behar dugu. (*Oihuka.*) Etxezain!

ETXEZAIN BAT

(*Atetik.*) Bai, jauna.

YANKIARRA

Ekar eiguzu txanpan-botila!

ETXEZAIN BAT

Bai, jauna.

ARKITEKTO ZURI BAT

Guk ez dugu edaten.

BESTE ARKITEKTO ZURIA

Horrela da.

YANKIARRA

Tamalez!

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

Parka, jauna. Guk bai...

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

...nahiz eta orain zer ospatu askorik ez dugun...

YANKIARRA

(Gutziz haserre.) Ez, ez! (Etxezainari.) Ez ezazu ezer ekarri!
(Arkitekto guztiak besotik heldu eta ezker aldeko aterantza doa.)
Jaun hauekin etxegintza-bertransformakuntza nola egiten den hitz
egin behar dugu. Ezta?

ARKITEKTO BELTZARAN BAT

O!

BESTE ARKITEKTO BELTZARANA

A!

(Guztiak alde egiten dute.)

III. ESKENA

Pertsonaiak: Frantsesa, Polizia.

.....

(Eskematokiko eskumaldeko atletik txalo-zarata ugari entzuten da. Atea zabaldu ondoren frantsesa eta polizia bat irtetzen dira. Polizia frantses eraz jantzita dago, bibote eta kapa luze batez. Tartamutua izan arren polizi keinuak egiten ditu: burua beti altxaturik, keinu dominatzaile eta pauso luze eta zarata ozenak. Bere biboteak eten-gabeki enroilatzen ditu.)

FRANTSESA

(Zerbait sumindurik.) «Monsieur police, s'il vous plait.» Ez dakit ondo ulertu duzun, baina jai zuri garrantzitsu hau ezer zintzilik utzi gabe prestatua dago, eta arrakasta segurtaturik dauka. Hori dela eta, zuen zerbitzua funtsezkoa da, zeren ordena eta diziplina mantendu behar...

POLIZIA

(Tartamutua denez gero.) O... O... O...

FRANTSESA

(Beti zerbait sumindurik.) Zer, O!? Ez da horrenbeste harritzeko, arraioa! Zu polizi zuzendaria zara eta!

POLIZIA

Ho... ho... hori diot nik. O... O... ordena eta diziplina mantendu behar, noski! *(Ukabila jasoz.)*

FRANTSESA

(Urduritasuna kontrolatu nahian, alferrik.) Biok ados gaudenez gero, gonbidatuen kontrol berezia gorde behar dugu. Badakizu hainbat jende ezjakintsu moda zuriaren aurka dagoela, eta jaiak boikoteatzera datoz hona...

POLIZIA

So... so... soso... *(Begipea hatz batez seinalatuz.)*

FRANTSESA

Bai! So egin dezagun ardura haundiz, gonbidatu zuriak soilik sar daitezten!

POLIZIA

So... soberan dakit hori! (*Berriz seinalatzen du begipea hatzaz.*)
La... la... la...

FRANTSESA

La... zer? Lan haundia duzula esan nahi duzu? Jakina!

POLIZIA

(*Buruaz ezetza adierazten du.*) La... la... la...

FRANTSESA

Laguntza eskatzen didazu? Nahi duzuna...

POLIZIA

(*Ezetza, berriz.*) La... la...

FRANTSESA

(*Urduritsua eta abotsa progresiboki altxatuz oihuka hasi arte.*)
Latza... landu... lainoa... labana...?

POLIZIA

La... lasai egon zaitetz, jauna!

FRANTSESA

(*Desesperazioa, antzertokiko jendeari.*) «Demasie» niretzat!

(*Une honetan bi pertsona beltzaran eta dotore ezkeraldeko atletik agertzen dira. Sartzerakoan abots beheraz hitz egiten ari ziren, eta frantsesa eta polizia ikusiz geroz, asaldatuak dirudite. Hala ere pertsonai hauek irribarre faltso eta kilimusi haundiz agutzen dituzte. Frantsesak eta poliziak beste hainbeste. Pertsonai beltzaranak bestela baitakoan hitz egiten geratzen dira, txoko batetan.*)

FRANTSESA

Ez naiz batere fidatzen hoiien muturretaz. Ikusten al dituzu?
(*Zeharretara begiratur.*) Zabal itzazu ongi begiak, «monsieur».

POLIZIA

Lo... lo... lo...

FRANTSESA

Hau ez da lo egiteko ordua, Jaikoarren!

POLIZIA

Lo... lortuko ote dugu jaina baketan ospa dadin. Larru zikin
hoiek...

FRANTSESA

Begira ezazu ea zerrendetan datozen, horiek gai dira gure jaina
zapuztutzeko eta.

POLIZIA

(*Kaparen azpitik enroilaturik daukan zerrenda luzea begiratzuz.*)
Ja... ja... ja...

FRANTSESA

Barregura ematen dizu, eh? Noski, horretan baitatza zuen lana,
honelako egoeretan zaudete zuek pozik.

POLIZIA

Ja... jai zuria ongi burutuko da; hori neure kontura geratzen
da (*ukabila bortizki astinduz*).

FRANTSESA

Mugimendu susmagarririk egin balezate... zuzen burura eta
doazela infernura!

POLIZIA

Gu... gu... gu...

FRANTSESA

Horixe baino ez dugu behar! Geu joatea infernura!

POLIZIA

Gu... guztiak bildu eta bihoaz... eurak. (*Eskuetaz keinu eginez.*)

FRANTSESA

Zertan zaude, bada! Joan eta gerarazi itzazu besterik gabe. Era-
kutsi polizia bat zarela!

POLIZIA

Ez... ez... ez...

FRANTSESA

Begira ezazue, hain ausartia zirudiena... oilo bustia baino ez da!

POLIZIA

Ez... ez dezakedala horrelakorik egin (*zerbait haserre*) zerrendetan baitatoz. Gainera, arazo tekniko batzu ditugu...

FRANTSESA

Nolako arazo teknikoak?

(*Bitartean, pertsonai beltzaranek, zerbait susmatu balute bezala, alde egiten dute ezker atetik.*)

POLIZIA

Komisaldegia erre... erre... erre...

FRANTSESA

Baina denak ez zituzten erreko, ala bai?

POLIZIA

Erre... errebeldez beterik ditugu egun hauetan, komisaldegia guztiak, ja... ja... jauna.

FRANTSESA

Eta zein da arrazoia, jakin badaiteke, jai zuria ospatzen den egunetan honelako arazoak gerta daitezten?

POLIZIA

Badakizu, jauna, po... po... po...

FRANTSESA

Bai, politika arazoak! Terroristak beti gora ta behera eta orain konpondu behar duzuela bururatu zaizue.

POLIZIA

Ez, ez, badakizu, po... po... po...

FRANTSESA

(*Antzerkiko jendeari.*) «Potroetaraino nagoela, badakit, bai, soberan ere... (*etxipenez*).

POLIZIA

(*Buruaz ezezko keinua dagien artean.*) Po... po... poliki, po... poliki moda zuriak egoera hau erakarri digula.

FRANTSESA

Zer? «Mais, ce n'est pas possible!» Zer du zerikusirik moda zuriak ordena publiko arazo honetaz?

POLIZIA

Gauza askotan, jauna. Dakizunez, gaurko ideia zuri eta berri hauetaz bizimodua zeharo trukatu da: gaurko pertsonak, modaz doazenak, noski, egunez lo eta gauez bizi egiten dute. Eta betidanik gaua azpimunduaren sehaska izan da. Suposa dezakezu, orduan, egunero sortzen diren istiluak: burrukak, lapurretak, asasinatzeak...

FRANTSESA

Nahiko, nahiko... Arina zara nahi duzunean, txo! (*Polizari hurbiltzen zaio eta doinu lagunkorragoz.*) Aizu, «monsieur»! Guztiok dakigu gaua zer den. Zorakeriak egiten dira noizbehinka (*konfidentzialki*)... Nork ez du gauren batetan ile zuri bat airera bota, eh? (*Animatuago.*) Gaugiroak sorginkeria berezia du gizonarentzat... zenbat abentura, asmo eta amets izan ote dira gauen sortuak...! (*Oso hunkitua.*) Gaua, Oh, la, la, la...!

POLIZIA

Bai, jauna. Oh, la... la... lana, poliziok egin beharko duguna!

FRANTSESA

Arranopola! (*Antzertokiko jendeari.*) Berriz hasten zaigu txantxetako ahototel hau! (*Polizari, hatz bat zerura jasoz.*) Ez da moda zuriaren hutsa, polizi jauna, eurak, bezeroak dira oker daudenak.

POLIZIA

Jo... Jo... Jo...

FRANTSESA

Bai, baina ez gehiegi ere. Gehiago erosteko moduan uzten badituzu, jo ditzakezu.

POLIZIA

Jo... jokabide hau, egia esaten badizut, guri oso ongi datorkigu. Polizion lana ez bada zihurtatzen... zer eraman dezakegu gure haurren plateretara? Ez al dugu lanerako eskubiderik, beste edozeinek beste?

FRANTSESA

«Mais, voyons»: zer da zuek maite duzuen, ordena bera, ala ordena mantentzea?

POLIZIA

(*Pentsati.*) Egia esan, aginte gazteak heldu zaizkigunetik, ez daukat arazo hori hain argi. Hain sutsuak dira gazte hauek... Baina, hori bai, guztiz eginkor eta efektiboak. Nik nahiago nuen lasaitasuna eta ordena bera. Baina gazteak hain indartsu datoz... ekin-tza nahi dute, ekintza eta ordena mantentzea beste edozeren gainetik.

FRANTSESA

(*Polizari sorbalda lagunki joz.*) Bikain deritzot jokabide moderno horri. Oso mesedegarria. Zeuri ere hitz-totela erabat kendu zaizu horretaz animatu zarenean. Ez dezagun, bada, unerik alferrik gal eta agin iezaiezue zure gizoni ez dezatela zirrikiturik miantu gabe utzi. Efektibitatearen izenean.

IV. ESKENA

Pertsonaiak: Italiarra, Apezpikua, Polizia, Frantsesa, Etxezain bat.

.....

(Ezkerraldeko atetik abotssk entzuten dira. Italiarra eta apezpiku beltzaran bat sartzen dira. Apezpikua apropos jantzita dago, eta ponperiaz hitz egiten du.)

ITALIARRA

(Urduritsua, frantsesari hurbilduz eta aparte.) «Con la iglesia hemos topado, caro amico.» *(Frantsesak eskuak burura daramatza, antzertokiko jendeari desesperazioa adierazteko.)*

APEZPIKUA

(Esku bat tripa borobilduaren gainean, eta besteaz guztiok be-deikatzen.) In nomine Patri et Filii et Spiritu Santuarena ere, ni, lurralde honetako Apezpiku Nagusia naizelarik, zeren Jesukristo Gure Jaunak izendatu baininduen, hona natorkizue, nola Ezkrittura Sainduak, Elizao Doktoreek, lehenagoko Jentilek eta ar zeruko, aireko eta lurreko gauza guztiok ere kondenatzen duteu pekhatua, hala ni neu, birtutearen zerbitzaririk apal, umil, xume eta manigigena bidali naute.

POLIZIA

(Ahozabal.) A... a... amen!

FRANTSESA

«Mon Dieu»!

ITALIARRA

Jesus, mile bider!

APEZPIKUA

Eta hargatik erraiten du San Krisostomok: «saepe bero ab ini-

micis non minus lucratur quam ab amicis. Cum enim nobis peccata ex prob raverint, etiam invitos, in ipsorum correptionem excitant.»

(*Apezpikuak esaldi luze hau erreztatzen duen bitartean, frantsesak italiarra aurrera o eramanez, berari abots beheraz hitz egiten dio.*)

FRANTSESA

Zer dio honek? Zuk ulertu behar duzu...

ITALIARRA

Ideiarik ere ez! Ni, italiarera batuaz bestez ez naiz mintzaten...

FRANTSESA

(*Arrazonamenduaz etsirik.*) A!

APEZPIKUA

...Eta ez dut nahi ezer esan zenbat kalte egiten den haragiaren bekhatuaz; lehenbizikorik itsutzen duela adimendua, eta nola behar den hartan sartzetik begiratu, eta sartuz gero ere, lehen baino lehen irtetzera saiatu...

FRANTSESA

(*Apezpikuak erreztatzen duen bitartean, aho zabalik eta erresetuz beterik dagoen poliziarengana doalarik.*) Begira ezazu zeure zerrenda bitxi horretan ea gonbidatua dagoen apez gogaikarri hau.

POLIZIA

Be... be... be...

FRANTSESA

(*Urduri.*) Utz ezazu be... be... hori, mokoplausta halako horrek! Eta emaidazu zerrenda, koño!

(*Poliziak, minduta, zerrenda ematen dio. Frantsesak begiratzen du.*)

APEZPIKUA

...baina haragiaren amorio desordenatuak beste kalte batzu egiten ditu...

FRANTSESA

Parka naza, pater. Baina jai zuri hau ez dagokio berorren duintasunari. Hori dela eta ez dago gonbidatuen zerrendan, noski. Sakrilegoa zatekeen berorren ezeleztzia gonbidatu izan bagenu...

APEZPAIZA

(*Sumindura dibinoaz.*) Zer diostazu, zoritxarreko pekhatari horrek? Jai batetako haragizko plazerrek deabrua alaiarazten dute. Nola den geroago gaitzago...

ITALIARRA

«Eccellenza, per favore!» Jai honetan ez dago kalterik. Topaketa kultural eta artistikoa da, eta, dakienez. Artea Jaungoinkoarena da.

APEZPIKUA

(*Sumindura dibinoaz.*) Pekhatuari, artea deitzen zaio orain, urrukariok? Oh, zero eta infernuak! Jesukristo gure Jaunaren mendekua lurraren gainera eror dadin, eta beraren suminduraz gizona delako zizare nezkagarri halakoa, erabat garbi dezan!

FRANTSESA

(*Poliziarengana doalarik.*) «Monsieur le police!» Lagun ezazu, gure ezelentzia sarreraraino, Jesukristoren aiherkundera hona heldu baino lehen...

POLIZIA

(*Ateraino doalarik.*) Ezinezkoa! Oraintxe gogoratu dut premi-nezko zeregina egin behar dudala... (*Frantsesak hartu nahi du, alferrik. Polizia desagertzen da.*)

ITALIARRA

«O, il mio pater carissimo!» Ez bada jai zurian parte hartzeko legezkoa denez, berori zertara etorri da hona, ba?

APEZPIKUA

Zertara? Bai galdera inozoa, txotxolo! Pekhatuaren arriskuetaz oharertazteko, noski! Ez zarete konturatu Satanas lurrera etorri dela, zuriz jantzia?

FRANTSESA

Ez da harritzeko. Deabruak ere eskubidea du modaz jantzeko.

APEZPIKUA

Isil zaitetz, burtzoro! Hori, metafora teologikoa soilik izan da. Moda berri honetaz pehatua haundituz doala esan nahi dut. Zeren... ez dut ezer esan nahi gaurregun jaukitzen diren akatsetaz. Esate baterako...

FRANTSESA

(*Antzertokiko jendeari begira, desesperazioaz.*) Ez, «s'il vous plait»! Berriz ez...

APEZPIKUA

...haragiaren amorio desordenatuak eragiten duen laugarren kalteaz: amoltsu eta akezko zirenak, egiten baititu kruel eta gertati...

ITALIARRA

(*Errespetuz beterik.*) Berorrek permitituko balit, signoria... esan nahi nuke moda berri hau, nire ustez, elizaren ikuspegiarekiko erabat onuragarria dela... (*Apezpikua aurpegi ikaragarria jarriz doa, eta zerbait esateko ahoa zabaltzen du. Baina italiarrak ez dio hitz egiten uzten, eta jarraitzen du.*) Entzun, mesedez! Pentsa desagun andrearengan, adibidez. Ez da betidanik pekatu-tresna izan? Halere, orain ikusten dugu andre modernoa onest jantzia. Erabiltzen diren arropa luze eta opakoak eguzkiaren aurka ezik, zeruaren alde ere eginak dira. Andreak ez du ezer erakusten, beraren esku eta begiak salbu. Orain baino garbiago, noiz begiratu dugu andrerik?

FRANTSESA

(*Italiarrari, konfidentzialki.*) «Très bien, mon ami! Très bien.

APEZPIKUA

(*Haserre bizian.*) Ez, ez eta ez! Hori ez!

FRANTSESA

Azkenean, zertan gelditzen gara? Urtean zehar pulpitoetatik andrearen biluztasuna jo eta ke kritikatzeari eman diozue; eta orain, inoiz baino estaliagoa dugunean, ez zareta ados ere?

APEZPIKUA

Ah, gizon dohakabe eta urrikgarriak! Badakizue nik bezain ondo zirikaldia orain dela askosaz haundiagoa. Zeren, ez badugu ezer ikusten, buruak azpitik zer egongo ote den baitihardu...

FRANTSESA

(*Antzertokiko jendeari.*) «Demasie»! (*Txalo batzu bortizki emanez.*) Etxezainak Zatozte ona!

APEZPIKUA

...handik, ikaragarria da zenbat eta zenbat pekhatu desonest, bortxaketa eta hilketa egiten duen gizon ahulak...

FRANTSESA

(*Bortizki txalokatzen.*) Etkezain! Ez du inork entzuten?

APEZPIKUA

(*Frantsesa mendekuz begiratur.*) Ez eizazu eten, demontre! (*Berriz hitzaldi dibinoaz, begi liluratuak zerura begira...*). Eta ez dut ezer esan nahi deabruzko moda erakarri dituen beste pekhatuetaz. Esate baterako...

ETXEZAIN NAGUSIA

(*Frantsesarengana, urduri.*) Deitu nauzu, jauna?

APEZPIKUA

...esate baterako konortea galtzearen akatsaz...

FRANTSESA

(*Etkezainari.*) Bai, deitu zaitut! Zernolako jai moeta da hau?

ETXEZAIN NAGUSIA

Parka nazazue, jaunak. Oraintxe deituko dut.

APEZPIKUA

...izan ere, alkohola delako kaltegarritasun madarikatu horrek eginiko ondorio zorigaiztokoaz...

ETXEZAIN NAGUSIA

(*Oihuka.*) Frantzisko! Peru! Jaunentzako txanpaina!

APEZPIKUA

...gizon zoroak zirikada onartuz gero...

BI ETXAIN

(*Txanpana eta kopak dakartzatelarik.*) Bai, jaunak! (*Kopa batetan apezpikuari zerbitzatzen diote.*)

APEZPIKUA

(*Etkezainei.*) ...Nahiko. Eskerrikasko, semeok. (*Dringi-dranga edaten du eta bere kopa berriz eskeiniz.*) Pixkatxo bat gehiago, soilik, zeren ez baita gehiegikeriarik egin behar. Honela, neurrigabekaria eta abusuaz San Agustinek zioenez: «quosque tandem, Katalina, abusare patentia nostram?» (*Dringi-dranga berriz edaten du. Korroskada zaratsua irtetzen zaio, eta antzertokiko jendearengana jotzen du.*) Osasun!

FRANTSESA

(*Antzertokiko jendeari, begi-keinua eginez.*) Hau, hobeto doa!

ITALIARRA

(*Apezpikua aho zabalik miatzen duelarik.*) «Pater amantissimus!» Ikusten dudanez hasi zara estiloaren arteaz jabetzen. Hain zuzen ere zuen banketxea aspaldi konturatu zen gure «planing» honen balore kultural eta artistikoetaz eta inbertsio handiak ditu gure projektuan eginak.

APEZPIKUA

Espiritu Santuko Bankuak? Ba, ez nekien, ez. Horrela bada, zerbait izango da (*hitzaldi dibinoaz jarraitzen du*)... Lehen nioen bezala... ez dut ezer esan nahi gula edo jangura desordenatua delako pekhatu zahar horretaz, zeren... (*Etkezain batek eskeintzen dion kanape-erretilua begiratzuz*). Zerezkoak dira bitxi horiek?

ETXEZAIN BATEK

Ah! «La nueva cocina vasca» deritzanekoak? (*Kanape bat hartu eta jan.*)

FRANTSESA

Horixe, ezelentzia! Ez dira «delicieux», benetan?

APEZPIKUA

(*Begi distiratsuak.*) Benedikatua izan dadila Arzak sukaldari jauna! (*beste batzu har eta jan*).

FRANTSESA

(*Apezpikuarengana doa eta kopa berriro zerbitzatzen dio.*) Honela da. Eta guztiok dakigunez, gauza onak Jesukristo gure Jau-nak eginak dira eta txarrak, ordea, Deabruak...

APEZPIKUA

(*Jan eta edanez.*) Bai, bai. Hori bai...

FRANTSESA

Esate baterako... nola Gure Jaungoikoak beztitu baitzituen lurreko animaliak, aireko hagaztiak, itsasoko arrainak eta oihaneko zuhaitzat ere, janzkera sorta anitzez, animaliak larruz eta ilez, hegaztiak lumaz, arrainak ezkatatuz eta zuhaitzak azalez...

APEZPIKUA

Bai, bai. Hori bai...

FRANTSESA

...hala Jainkoak gizona ere beztitu nahi zuen. Eta gu geu, (*Italiar harritia eta bera seinalatuz*) Jesukristo geure Jaunaren zerbitzaririk apal, xume eta manuginenak, bidali gaitu... (*Aho zabal dagoen italiarrari.*) «Mon ami», gure ezeleziari erakutsi al diozu elizarako bilduma zuria?

ITALIARRA

Ah! Ez. Oraindik ez...

APEZPIKUA

Zer da bilduma zuri hori?

ITALIARRA

Oh, «pater carissimus»! Elizkizun guztietarako jantzi ereduak: Aita Saindua bisitatzeko denerako, zein ehorzketa batetarako, zein bataioetarako... Kristoren bilduna da!

APEZPIKUA

(*Interesatua.*) Hori, bidinoa da! Goazen arin ikustera!

FRANTSESA ETA ITALIARRA

Goazen, bai. Goazen...

Frantsesak, erretiluekin zur eta lur dauden etxezain biak deitzen ditu, beraien atzean joateko. Ezkerraldeko atetik irtetzen dira; eta frantsesak, irtetzerakoan, antzertokiko jendeari begi-keinua egiten dio.)

V. ESKENA

Pertsonaiak: Lehendakaria, Ministro Beltzaran bat, beste ministro beltzarana, italiarra, frantsesa eta polizia.

.....

(Batera eta bestera begira, kontu haundiz, eskubiko atetik hiru beltzaran sartzen dira: lehendakaria eta bi ministro. Lehen agertu diren pertsonai dotore eta susmagarriak, hain zuzen.)

MINISTRO BAT

Patata bigun dago... bota dezaiokegu porrua.

BESTE MINISTROA

Zuritu dezagun patata gehiago.

LEHENDAKARIA

(Abots erdi isilaz.) Astiroago, arren! Ezin dizuet segitu. Ea, birpasa ditzagun, mesedez, kontraseinuak.

MINISTRO BAT

Berriz? Oso erraza da: zer esan nahi du porrua botatzeak?

LEHENDAKARIA

Ministro zuriak giltzaperatzea?

MINISTRO BAT

(Etsipenez.) Ez, ez, ez!

BESTE MINISTROA

Horenbeste ez, jauna, Hitz egin daitekela, inor ez dagoelako, hitz egin daitekela, lasai. Orain artekoa, argi?

LEHENDAKARIA

Porrua bota: hitz egin. Bai, segitu, porrua botatzen.

MINISTRO BAT

Gogora ezazu, lehendakari jauna, batez ere noiz isildu behar duzun. Hau guztiz garrantzizkoa da. Ministro zuriak, gure adiskide maitagarri hoiek espioiak jarri dituzte lekuoro. Ez fidatu inortaz eta hau entzuten duzunean: «Indabak gogor daude» kontuz! Hitzik ere ez! Geldi eta isilik. Argi dago?

LEHENDAKARIA

Orain artekoa argi dago, bai porruak eta bai indabak, baina errazago litzaidake beste era batetako hiztegi klabea asmatu izan bazenute, legatz frijitua, idi txuleta, mariskoren bat...

MINISTRO BAT

Badakizu lurgintza ministroari utzi geniola (*beste ministroa seinalatuz*) plana asmatzearen ardura hau eta honen kompetentzietan ez da sartzen abeltzantzarik, ez arrantzarik, oraingoz.

BESTE MINISTROA

Bai, horrela da. Jar ezazu interes piska bat eta ongi ulertuko duzu, lehendakari jauna. Froga bat egin beharko genuke, dena itxulipurdika irten ez dakigun. Adibidez: Bota porrua!

(*Lehendakaria isilik geratzen da eta ministroak begira jartzen zaizkio. Une bat geroago...*)

MINISTRO BAT

Esaizu zerbait, Lehendakari jauna, «Bota porrua esan du» eta.

LEHENDAKARIA

Ah! Bai, ba, ministro zuri alenok albotik kentzen ditugunean, egun eguzkitsua sortuko da gure herriarentzat eta errudun guztiak giltzaperatu ezeze, nik orma baten aurrean...

BESTE MINISTROA

Indabak gogor daude!

LEHENDAKARIA

Ez bakarrik giltzaperatu, nioen, baizik...

MINISTRO BAT

Indabak gogor daude!

BESTE MINISTROA

Indabak gogor daude!

LEHENDAKARIA

Bai, bai, ulertzen dut. Isilik.

MINISTRO BAT

Segi dezagun hiztegiar: Plana ongi badoakigu, asmatu bezala, funtzionari bat bidaliko dizute mezu honetaz: aurten ederra dama-hatsa. Zerbait nahi bezain ongi ez badoa, ordea, mezua zera izango da: berandu dator artoa.

LEHENDAKARIA

Geldi, geldi! Idatzita gorde behar dut, bestela nahasi egingo naiz.

MINISTRO BAT

Hobe zenuke buruz ikastea, baina, tira! Ahaztu egin behar baldin baduzu, idaz ezazu... (*paper edo block batetan idazten du lehendakariak*).

LEHENDAKARIA

(*Berekiko murmuriatuz idazten duen artean.*) Porrua bota... Indabak... ederra da mahatsa... artoa...

MINISTRO BAT

Dena erabat gaizki irten baledi, mezua zeraizango litzateke: garrantziko jan guztia erre egingo zaigu. (*Errepetitzen du.*) Kasu honetan ahal baitlehen hanka egin behar dugu, dena bertan behera utzita, bakoitzak dakien eta ahal duen moduz.

LEHENDAKARIA

(*Idatziz batera erre pikatzen du.*) Erre egingo zaigu. Besterik?

MINISTRO BAT

Egoera nola dagoen edo beste zerbait galdetzeko, hauxe izango dugu galdera: Zer moduz doa uzta?

LEHENDAKARIA

Ederki. Mezuak diskretoki pasatuko dizkizuet eta behar denean nire ordenak izango dituzue. Orain, beste gai bati helduz...

MINISTRO BAT

(*Eten egiten diolarik.*) Astiro, astiro, zihurtasunez jokatu behar dugu. Ikus dezagun: Aurten ederra da mahatsa!

LEHENDAKARIA

(*Pentsati.*) Mahatsa, mahatsa...

BESTE MINISTROA

Ederra, ederra da...

LEHENDAKARIA

(*Besteak konturatu gabe paperean gebiratzten saiatzen da.*)
Aurten ederra da mahatsa! Bai, ederki doala dena. Oso erraza da.

MINISTRO BAT

Ea, berandu dator artoa.

LEHENDAKARIA

Artoa... artoa... Gaizki doala izango da, noski.

BESTE MINISTROA

Ez! Gaizki ez, ez doala hain ongi, baina aurrera doala. Berandu dator, baina etorri badator. Argi?

LEHENDAKARIA

Noski! Berandu dator mahatsa, eta ederra da artoa.

MINISTRO BAT

Zu bai zarela artaburu ederra. (*Zerbait haserre.*) Aurten ederra da mahatsa eta berandu dator artoa. (*Lehendakaria kopetilun jar-tzen denez.*) Barka nazazu, jauna, baina ezin gaitzke txantxetan ibil arlo honetan.

BESTE MINISTROA

Orain artekoa badakizu, noski baietz. (*Ardorea eman nahi dio-larik.*)

MINISTRO BAT

Goazen aurrera, bada: garrantzizko jan guztia erre egingo zai-gu. Hauxe da hoberen ikasi behar zenukena, zeure onerako. Ga-rrantzizko jan guztia erre egingo zaigu.

(*Lehendakaria, kopetilun oraindik, paperean begiratzten hasten da, disimuloz.*)

LEHENDAKARIA

Ihes egin behar dela.

MINISTRO BIAK

Ondo, oso ongi!

MINISTRO BAT

Azkenez galdera bat baino ez da gelditzen: Zer moduz doa uzta?

LEHENDAKARIA

Zeren uzta?

MINISTRO BAT

Bai, jauna... galdera hori egitean, gure plana zer moduz doan galdetu nahi izango dizute.

BESTE MINISTROA

Azken birpasaketa emango diogu: Bota ezazu porrua!

LEHENDAKARIA

Bai, bai, hori banekien, hitz egin...

MINISTRO BAT

(Arinki.) Aurten ederra da mahatsa! *(Lehendakari, ahora za-balik begira geratzen zaio.)*

BESTE MINISTROA

Dena doala... ede...

LEHENDAKARIA

Dena doala... ederki!

MINISTRO BIAK

Oso ondo!

MINISTRO BAT

Garrantzizko jan guztia erre egingo zaigu!

(Lehendakaria geldi eta isilik dagoenez, bi ministroak ulakondoa ikutzen dio, ihes egiteko planta egiten duelarik.)

LEHENDAKARIA

Ihes egiteko ordua heldu dela.

BESTE MINISTROA

Zer moduz doa uzta?

LEHENDAKARIA

Ederki!

BI MINISTROAK

(*Batera.*) Oso ondo!

LEHENDAKARIA

Orain emaidazue azken asteko egoraren berri.

BESTE MINISTROA

Egoera ekonomiko eta soziopolitikoaren bilakaera... gero eta larriago jarriz doakigu, jauna. Ez da, ia, ia nekazaritzaren arrastorik gelditzen, dena unportatu beharrean gaude. Arrantza eta abeltzantza ministroak azaldu didanez, haragia ere % 90 inportatu egin behar dute eta arranuntziak, geratzen diren apurrak, herdoiltzen ari dira.

LEHENDAKARIA

Orduan behartu egin behar dira langileak lurretara itzul daitezten, derrigortu lan egiten, urkatu behar badira ere.

MINISTRO BAT

Interes gogorrez dihardute asmo hoién kontra, alferrik da dena. Lanerako orduak ere ofizialki egunez jarri ditugu, langile eta jabeak horretara behartuz, nahiz eta ministro zuriak aurka izan ditudan. Baina azken batez, neuk ere ezin dut egunezlanik egin, lo baitago mundu guztia. Jendeak ez die kasurik egiten nire aginteci eta beste ministroak nitas trufatzen dira gaeuz lo egin nahi dudalako.

LEHENDAKARIA

Gaeuz lo egitea besterik da, beste batzuk ere ez dugu egiten, baina langileek egunez lan egin behar dute, horrela agintzen dut.

BESTE MINISTROA

Gosearen mamua ere hor dugu, nahiko hurbil. Gaur egin gero eta gutxiago dirakalaria gutxiengo kopurura heltzen direnak. (*Lehendakaria mamarka ari da eta noizbehinka papera atera eta begirada bat botatzen dio, kontraseinuak bururatzen bailego.*) Farmazi eta Kimika industria, ordea, bai doala lodituz, modan dauden era guztietako pilulak salduz. Honelakoak, adibidez. (*Pilula taulatxo bat erakutsiz.*) Honetariko batetan bazkari bat dator.

LEHENDAKARIA

Eta zer dute pilula horiek?

BESTE MINISTROA

Izarren salda, azelgak egosita eta arrain izoztua. Hauek postre-rik gabekoak dira.

LEHENDAKARIA

Ez al da hori, bada, nahiko janari zuretzat?

BESTE MINISTROA

Zorionez badut bestelako jatenik: Hau badaezpadakoa dut. Baina honelakoak baino jaten ez dituztenek ez dute ez bitamina ez proteina, ez ezelakorik barnerazten. Horrela ugaritu dira gaisotasunak ere. Horretaz nire kideko maiteak daki (*beste ministroa seinalaturik*).

MINISTRO BAT

Bai, egoeraren larritasun aldetxo bat besterik ez dizugu azalzen, jauna. Eritegietan ezin da ohe libererik aurkitu, azaleko gaisotasunak ugariagotuz doaz, jendeak amorrua baitio eguzkiari eta gaisotasun berriak...

BESTE MINISTROA

(*Eten egiten diolarik.*) Indabak gogor daude!

LEHENDAKARIA

Badakit! Horrek isildu egin... (*Ahoa eskuaz estaltzen du eta geldi eta isilik geratzen da. Frantsesa eta italiarra sartzen dira hizketan eskubiko atetik.*)

FRANTSESA

«Oui, mon ami!» Eta beste krema berri bat azokaratu omen du, oso garestia, baina modan berehala jarri dena.

ITALIARRA

Ah! «cossa grande, il marketing!» Andre zuriaren irudiak edozer sal desake. «Ma», zeuri ere ez doakizu gaizki: aurten inoiz baino salmenta «piu» ugariak egin omen dituzu.

FRANTSESA

Bai, egia esan, ezin ninteke kexa, baina bada ni baino zori hobe duenik.

ITALIARRA

Amerikarraz ari zara, noski.

FRANTSESA

«Bien sur!» Nahi duena saltzen ari da eta edozeinek baino ga-restiago.

ITALIARRA

Bai, horrek urte ederrak daramatza.

Lehendakari eta ministro beltzak disimuloz ari ziren, gora eta zeharretara begiratzuz eta une horretan lehendakariak, asaldatuz, idatzu duen papera begiratzuz du.)

LEHENDAKARIA

Aurten ederra da mahatsa! (*Italiarrarenganantz hurbilduz.*) Bota porrua! Bota porrua! (*Ministroak besoetatik helduz, alferrik saiatzen dira lehendakaria gerarazten.*) Guetarikoak ditugu eta!

BESTE MINISTROA

Jauna! Indabak gogor daude! Indabak gogor daude!

(Lehendakaria badaramate alde batera eta italiarrak nahiko harriturik, segitzen du elkar hizketa.)

ITALIARRA

(Frantsesari.) Azken hilabeteok ere entzun dudanez, onak izan dituzu ez da hala? Zer moduz abuztua?

LEHENDAKARIA

(Berriro ere italiarrarenganantz doalarik eta ministroei.) Ikusten duzue? Zer moduz doan uzta galdetu du. Guetarikoa da! (*Italiarrari.*) Oraingoz ez da berri txarrik heldu, behintzat. Laster gara zeharo egoeraren jabe. (*Ministroek tiraka daramate.*)

MINISTRO BAT

Jauna, mesedez!

BESTE MINISTROA

Indabak gogor daude! Indabak gogor daude!

FRANTSESA

(Lehendakaria seinalatuz.) Honek ere interes komertzialak dauzka kosmetikan, ala?

ITALIARRA

Ez, horrek kopa batzu dauzka gainetikan.

Ministroek egoera isilean azaltzen diote lehendakariari eta une honetan polizia sartzen da.)

FRANTSESA

(Poliziari.) Egoera kontrolpean dago, n'est pas?

POLIZIA

Urduitasuna nabari dut, mu... mu... mugimendu gehiegi dabil, bai kanpoan eta bai barruan *(ministro ta lehendakari begiratu).*

ITALIARRA

Zuei eskerrak, polizia jaun eta adiskide, demokrazia gazte hau sendotuz doa. Lasai al dago hemen, zure ustez, egoera politikoa?

POLIZIA

Ez... ez... ezin hobe! Demokrazia, zuk diozun bezala, gero eta indartsuago eta osasuntsuago dago. Ja... ja... jaunari esker, herri demokratiko honi ongi merezita dagokion errege ezin demokratagoa dugu eta au... au... hay desagertzen zaigunerako, urte askotan ez bedi holakorik gerta, bere semea, *Frantzisko Juan gaztea errege egin zaigu.*

LEHENDAKARIA

(Izuz.) Garrantziko jan guztia erre egingo zaigu! Ministroak ere ikaraz, lehendakaria hara ta horra hasten da korrika bizian eta hirurak irtetzen dira ate ezberdinetatik, frantsesa eta italiarra ere bultzatu eta nahasten dituztelarik.

POLIZIA

Nik banioen hauek zerbait zerabilte! Jazarri ditzagun!

(Arineketan irteten da, eta frantsesa eta italiarra ate batetik bestera ari dira arinka zerbaiten beldur bailiran, ezer ulertu gabe.)

VI. ESKENA

Pertsonaiak: Yankiarra, Frantsesa, Italiarra, Ebrodueroko bat, Ebrodueroko bestea.

.....

(Eskumaldeko atetik entzuten dira. Atea zabaldu eta jankiarra pozik agertzen da. Bere atzetik hiru gizon dotore eta zuriegik darraiote: kopa-kapelu, exekutiboen maletatxo eta ezpainetan izugarritzko irribarrez.)

YANKIARRA

«My dears!» Non egon zarete? Toki guztietatik bilatu zaituztet, alferrik.

FRANTSESA

Bada, begira, hemen gaude. *(Esku batekin bekokiaren izerdia xukatuz.)* Ez dakit nola, baina oraindik bizirik...

ITALIARRA

(Frantsesari.) Ez dakigula zenbat denborako da arazoa, «per que» gauzak oso «bruno», oso «negreto» ikusten dira...

FRANTSESA

(Txoko batetan dagoen aulkian amiltzan da.) Bai «negreto»! Honek, jai zuria baino, beltzaranen guda dirudi eta.

YANKIARRA

(Euforikoa.) Etzazue amore eman, «my darlings»! «The way» «of the» famarako oso gogorra da, noski. «Speak» eta «speak» egin behar da...

ITALIARRA

(Antzertokiko jendeari.) Jope, «speakirekin» «Si» haiek «Speaketzen» dute dena...

YANKIARRA

Ba, ba, ba! Begira nortzuk etorri zaizkigun zorionak ematera.
(*Gizon dotoreak eta zuriegiak seinalatuz.*)

ITALIARRA

Ez, ez, «per fabore!» Beste batzu ez...

YANKIARRA

(*Hasarre, eta italiarrari abots beheraz.*) Isil, «Stupid!» Ez duzu ikusi beraien aurpegien kolorea? Gure aldekoak ditugu!

ITALIARRA

(*Etsipenez.*) Honela bada...

EBRODUEROKO BAT

(*Iribarre izugarriaz.*) Zuek bezalako pertsonai garrantitsuak ez-gutzea ohore bat da geuretzat. (*Frantsesa eta italiarrari eskua luzatuz.*)

FRANTSESA

Eta nortzuk zarete zuek?

EBRODUEROKO BAT

Ah!, parka nazazue! Gu, Ebroduerokoak gara, noski!

FRANTSESA ETA ITALIARRA

(*Batera.*) Ah!

IBERDUEROKO BESTEA

Jai zuri zoragarri honetara gonbidatuak izan gara, geure enpresaren izenean gai bati buruzko solasaldian esku har dezagun.

FRANTSESA ETA ITALIARRA

(*Batera.*) Ah!

YANKIARRA

Hitzaldia «beautifula» izan da, benetan! Jende guztia ahozazabalik geratu da hauen azalpena entzun ondoren...

FRANTSESA

«Trés bien, très bien!» Eta zein gaitaz hitz egin duzue?

EBRODUEROKO BAT

(*Betiko irribarrez.*) Energi-iturrietan moda zuriak izan duen

eragipenaz. Zentral nuklearraren hazkunderaz eta energi-etorkizunaz. Suposa dezakezue, beroki defendatu dugu gure tesia.

FRANTSESA ETA ITALIARRA

Ah!

ITALIARRA

«Molto bene, molto» interesgarria. Egia esan neure kasa ez nintzatekeen eragipen horretaz jabetuko. Legezkoa denez artistok teknikuntza ahaztu egiten dugu askotan.

EBRODUROKO-BESTEIA

Jakina, jauna! Zuek, artistak zaretenok, beti Musaren zain...
(*Betiko irribarreaz, zerura begiratzen du.*)

YANKIARRA

(*Mahaian dagoen kopa txanpiaz betez.*) Ejem, ejem! Ez da hainbesterako ere. Eredu berria sortzerakoan gauza guztiak hartu ditugu kontutan.

ITALIARRA

(*Temati.*) Bai, baina «non capisco» oraindik, zertan dagokion zentral-nuklearra gure modari, eh?

EBRODUEROKO BAT

Ai, artista gurea! Ez zara konturatu moda berria jaio denetik, ezin dela eguzkitan bizi eta beste moetak energia beharrezkoa dela? Iluntasuna iristen denean, etxe guztiak esnatu eta argizatuz doaz. Ah, hura paisai ederra, gau osoan gure herri eta hiri guztiak sutsuki distiratzean...!

ITALIARRA

(*Bestea bezain euforikoa.*) Ipurtargi-bizitasunaz murgildurik bailitza...!

EBRODUEROKO-BESTEIA

Horixe, horixe! Zu bai zarela artista!

YANKIARRA

(*Kopak eskeiniz doa.*) Hori dela eta, opari bat proposatzen dut!

ITALIARRA

Brindisa, ederto!

FRANTSESA

Nire herriko txanpaiaz, ezta? Ez dago «bouquet» hoberik...

ITALIARRA

(*Frantsesari.*) «Benno»... Sapagettiei buruz hitz egin beharko bagenu...

YANKIARRA

«Ou, nou!» Txanpaia nahiago dut. Coca-Colarekin antza haundiena duena da eta... (*Txanpaia zabaltzen du.*)

EBRODUEROKO BAT

(*Kopa jasoz.*) Moda zuriaz opa egiten dut!

GUZTIOK

(*Berdin eginez.*) Moda zuriaz!

FRANTSESA

Gora zuritasuna!

GUZTIOK

Gora!

FRANTSESA

Gora A.Z.E.M.!

(*Guztiok ixil eta harrituak.*)

YANKIARRA

«Moment, please!» Ez zait gustatzen ezagutzen ez dudana os-patzerik. Zer da esan duzun hori?

FRANTSESA

Zu, betiko fidagaitz, «mon ami!» A.Z.E.M.! Andre Zuriaren Elkartasun Mundiala!

GUZTIOK

(*Lasaiago.*) Ah!

YANKIARRA

Bad, Gora AZEM!

GUZTIOK

Gora!!

(Yankiarra irrintzi luze bat botatzen du. Jai-musika entzuten da, eta italiarra «La donna e mobile, má piuma al vento...» Kantatzen hasten da.)

VII. ESKENA

Personaiak: Etxezaina, Frantsesa, Ebroduerokoak, Polizia, Autoestopista, Ekologistak.

.....

(Noiz eta momentu honetan dator etxezain ikaratua.

Hemendik aurrera gertatuko diren ekintzak, antzerkilar honetako korapilatsuenak izango dira. Alde baterik aktore asko beharko da, eta dagoen baino gehiago adierazi behar da. Honekin batera espazio-arazoa planteiatuko da, jendetzaren aruera. Hori dela eta, mahai eta aulkiak disimuloz norbaitek kendu behar ditu.

Azkenean, ekintzari arintasuna dagokio, hainbat unetan ia batera hitzik ez dutelako egingo.)

ETXEZAINA

(Frantsesa eta yankiarrengana jotzen du.) Jaunak! Jaunak! Entzun ezazue, mesedez!

(Italiar eta Ebroduerokoek ez diote jaramonik egiten. Beraien «Donna e' mobile»-rekin jarraitzen dute.)

FRANTSESA

(Zerbait ikaratua.) Ixil zaitezte! *(Ez diete kausrik egiten.)* Ixil guztiok, «merde»!

(Isildu egiten dira. Etxezaina, eskumaldeko atea behin eta berriro begiratzen duen bitartean, arnas hestuka hitz egiten hasten da.)

ETXEZAINA

Parka nazazue! Baina... *(Zalaparta izugarria entzuten da eskumaldeko atetik.)* ...sarrera nagusitik gonbidaturik ez dagoen hainbat gazte sartzen ari zaigu. *(Zalaparta haundituz doa.)* Hitz egin nahi dutela esanez datoz tropelaka. Zer egiten dugu, jaunak?

FRANTSESA

(Ikaratua.) Nortzuk dira? Zer nahi dute?

YANKIARRA

(*Oihuka.*) Arin, dei ezazue polizi zuzendaria!

ETXEZAINA

Bai, jauna! Oraintxe! (*Eskumaldeko aterantza doa, baina abotsak oso hurbil daudela nabaritzuz, bira egiten du eta ezker aldeko atetik desagertzen da, poliizia deika. Bien bitartean, kanpoko abotsak «Denontzat... pakea/ belztasun... librea...» errepika behin eta berriro.*)

EBRODUEROKO BAT

(*Irribarrea ez da lehen bezain ziurra.*) Guk, egia esan, gaurkoz amaitu dugu hemen eta bagoaz...

FRANTSESA

(*Txanpaita eskuan daramalarik.*) Ez, ez! «Pas de tout!» Geldi zaitzekete pixkatxo bat oraindik...

EBRODUEROKO BESTEA

Ezinezkoa. Joan egin behar dugu eta.

(*Ezker aldeko atetik alde egin nahi dute, baina polizi zuzendaria une horretan sartu eta elkar jotzen dute.*)

POLIZIA

O...o...ordena! Ho...ho...horiexe ez de irtetzeko modua! (*Ebrodueroak oratzen ditu, irteera galeraziz.*)

EBRODUEROKO BAT

Zorionez polizia datorrela! Gertu-gertuan etorri da!

(*Eskumaldekotik gazte bizidun batzuek sartzen dira, eta lehenengoa autoestopista da. Gazte horiek ekologistak dira eta jantzi aproposak erabiliko dituzte. Beste gazte batzuk barazkiak daramatzate, landare-jaleak direlako. Batzuek bizikletaz datoz, beste batzuek oinez, eta guztiak eskumaldeko sarreran tropelaka geratuko dira, eta atearen atzetik askoz ere gehiago dagoela adierazi behar da.*)

AUTOESTOPISTA

(*Ebrodueroak ikusten dituenetan, beste ekologistek.*) Begira nortzu ditugun hemen! Ebrodueroak!

(*Ekologista-multzotik irain eta protestak entzuten dira.*)

EBRODUEROKOAK

(*Irribarrea desagertu zaie, eta ikaraturik daude.*) Ene bada! Hau zarrada! Ekologistak dira!

YANKIARRA

(*Polizari, urduri.*) Ez dituzu ganberro hauek ikusten? Zerbait egin ezazu!

POLIZIA

O...O... oraintxe! (*Bere poltsi kotik liburuxka eta boligrafoa ateraz.*)

EKOLOGISTAK

(*Manifestaldietan erabiltzen diren doinuetaz, protesta-esaldiak behin eta berriro. Ebroduerokoentzat dira.*) Hauek dira, hemen daude, putaseme, lotsagabe!

POLIZIA

(*Sarreran dauden ekologistengana doalarik, liburuxka eta boligrafoa eskuan.*) Ea! Ze... ze... zergatik zarete hain arin? Ez da... dakizue abiadura-demasa debekaturik dagoela, a... ala?

(*Aurrean dauden ekologistek barre egiten dute. Italiar eta frantsesak txanpái-kopa dramate oraindik eskuan, eta egoera erridikulan daude asko ulertu gaberik.*)

YANKIARRA

(*Polizari, gorroto.begiradaz.*) «Stupid!»

POLIZIA

(*Haserre.*) Kontuz gero, jaun! Polizari irain egitea delittoa da, eta gartzelaz ordaintzen da!

EBRODUEROKO BAT

(*Ebrodueroko besteari.*) Gu biok, goazen hemendik! Orain edo inoiz ez!

IBERDUEROKO BESTEA

Bai, orain arin! (*Ezkerraldeko atletik bestela baitakoan alde egiten dute.*)

EKOLOGISTA BAT

(*Alde egiten dutela konturatuz.*) E, arrain lodiek hegaz egin nahi dute!

(*Beste ekologistek protestatzen dute eta Ebroduerokoan bila joan nahi, baina hiru pertsonaia arrotzek ez dituzek aurrera joaten uzten.*)

POLIZIA

(*Eskua altxatzen du, keinu dominatzaileaz.*) Ge...ge...ge...

YANKIARRA

(*Ekologistei, oihuka.*) Ez diozue poliziarri entzuten! Gelditzeko diotzue! (*Zerbait ixiltzen dira.*)

POLIZIA

(*Yankiarrarekin haserre.*) Ezetz! Ez dut gelditzeko esan. Ge...ge... gero harrapatuko dituztela esan dut, multa ordaindu ondoren...

(*Ekologistek barre egiten dute. Yankiarrak desesperatua atzeratzen da.*)

AUTOESTOPISTA

(*Poliziarri.*) Gu ez gara etorri multarik ordaintzera, manifestatzen baizik.

POLIZIA

Ah! Ho...ho...hori beste gauza da. (*Liburuxka eta boligrafoa gordetzen dituelarik.*) Eta zeren aurka manifestatzen duzue?

AUTOESTOPISTA

(*Beste ekologistei galdetzen die.*) Entzun duzue, lagunok? Zeren aurka gaude?

EKOLOGISTEN ABOTSAK

(*Desordenatuak eta oihuka.*)

«Guk ez dugu nahi iluntasuna!»

«Eguzkia maite dugu!»

«Iluntasuna nahi ez duguna»

«Goizez nahi dugu bizi, eta gauzez lo, ez beste!»

«Ez dugu energia nuklearrik nahi!»

«Ez eta pilulak jateko. Barazkiak jan behar ditugu!»

(*Hau,*

barazk ia daramatzen baten batek dio.)

«Itsasoa eta mendiak gorde!»

«Eguzkia maite!»

«Ez dugu nahi zuritasunik!»

«hori!»

«Iluntasuna nahi ez duguna! Gora eguzkia gure laguna!

«Eguzkia bai, nuklearrik ez!»

(*Guztiok behin eta berriro errepika:*)

Bai, bai, bai...

eguzkia bai.

Ez, ez, ez...

Zuritasunik ez!

FRANTSESA

(*Polizari.*) Zerbait egin beharko duzu! Zu zara honetan erantzulea!

POLIZIA

(*Frantsesari.*) Manifestaldi hau le...le...legala da? Ba...badute baimenik?

FRANTSESA

(*Sumindurik.*) Zer baimen eta zer baiben! Nik zer dakit! Gainera zer axola die baimenik duten ala ez?

POLIZIA

(*Frantsesa, italiar eta yankiarrari, zeintzu txoko batetan baitaude.*) Lasai, jaunak! Nik de...dena kontrolatzen dut. Hau manifestaldi baketsua da eta!

EKOLOGISTEN ABOTSAK

(*Desordenatuak eta oihuka.*)

«Zuriak, putasemeak dira!»

«Bai! Eta zerriak!»

«Kabroiak!»

«Pepelerdoak!»

.....

...

«Kanpora joan daitezela!»

«Hori! Zuriak kanpora!»

(*Kantatzen hasten dira, «Que se vayan, se vayan, se vayan...» doinuaz.*)

«Joan daitezen, daitezen, daitezen...

joan daitezen zuri guztiak,

joan daitezen, daitezen, daitezen...

nahi duguna desagertzea...»

YANKIARRA

(*Beraren bi lagunei.*) Hau oso itsusi jartzen ari zaigu. Hobeto alde egiten badugu! «Come on»!

POLIZIA

(*Ekologistei.*) I...I... ixilik, jaunak! I...i...

(*Une honetan landarejale batek tomate bat botatzen dio poliziarri ahoan. Polizia zur eta lur —eta tomateaz zikinduta— geratzen da.*)

Ah, ez! Hau gizarte-desordena da eta ezin dut onartu. Neure indarrak deitulo ditut! Po...po...

FRANSESIA

(*Aitean, bereien lagunekin dagoela.*) Garaia izan da!

EKOLOGISTA BAT

(*Ikaratuta.*) E, Lagunak! Polizia datorkigu!

(*Ekologista guztiak irten nahi dute, baina atzetik ez dira mugitzen eta bulliza, erorketa, deidarrak eta abar, eskumaldeko atean.*)

FRANSESIA

(*Poliziari.*) Tira, ba!

POLIZIA

Po...Po...Polizia, neuri!

(*Ekologista guztiak alde egitea lortu dute. Ezkerraldeko atetik bi poliziak agertzen dira, yanki, frantses eta italiarrak alde egiteko dauden momentuan eta elkar jotzen dute. Guztiak erori. Bi poliziak arinki altxatu eta lurtean jausita dauden besteak apuntatzen dituzte harmez.*)

BESTE POLIZIA

(*Surtean daudenei.*) Geldi zaitezte legearen izenean!

YANKIARRA

Hauxe baino ez genuen behar!

ITALIARRA

«Per favore!» Gu ez...

POLIZIA

Ho...ho...horiek ez dira, kirten! Beste aldekoak!

BESTE POLIZIA

Zure aginpean, zuzendari! Nora jaon behar dugu?

(*Eskumaldeko atetik ekologisten abotsal entzuten dira. Manifestaldietan poliziak zirikatzeke erabiltzen diren doinuaz «vagos... vagos...» Entzuten da «zuriak... zuria...» «zuriak... alferrak...»*)

POLIZIA

Ho...ho...hor ditugu. Goazen arin!

(*Polizia guztiak eskumaldeko atetik irtetzen dira.*)

VIII. ESKENA

Personaiak: Suediarra, frantsesa, yankiarra, italiarra, polizia, kosakoa, Euskadiko baserritarra.

.....

(Une honetan ezkerreko atetik beste pertsonaiak sartzen dira. Herri zurietao ordezkariak dira: suediar, kosako eta Euskadiko baserritarra. Jantzera aproposaz janzten dute. Oso gutxi eta sei oski hitz egiten dute, beraien «hoztasuna» adierazteko. Zuriak direnez gero, suediarrek plaka bat darama eskuetan, Moda zuriaren ohorez. Bien bitartean eskumaldeko atetik ekologista eta polizien arteko zalaparta entzuten da.)

SUEDIARRA

Sar gaitezke, jaunak?

FRANTSESA

Nola ez! Hona, guztiok irten...sartu...Irten...sartu... *(eskuaz adierazten du)*.

YANKIARRA

Nondik zatozte hain zuriak izanik?

SUEDIARRA

Errusia, Euskadi eta Suediatik, jauna.

YANKIARRA

(Animatuago.) Lurralde hezeetatik, ederto! Orduan gure aldekoak zarete.

SUEDIARRA

Kosmetika-hiru sortzaile nagusien bila etorri gara, geure lurraldeek eginiko ohorezko plaka eskeintzeko.

ITALIARRA

«Oh, meraviglioso!» Zatozte hona, «carissimi!» Nor eta gu gara bilatzen dituzten pertsonak (*Beraiengana doa eta musu zala-partasua ematen die. Eskumaldeko atetik zarata eta «putaseme!» entzuten da.*)

FRANTSESA

«Céste magnifique!» (*Gurgerek egiten dizke. Behin eta berriz beste atetik zaratak.*)

YANKIARRA

«That's all right!» (*Eskua sutzuki hestutzen die, beste aldeko bi-raoen artean.*)

(*Pertsonaia hauek ez dira ezer kunkitzen, ez adierazpen maitagarri hauetaz, ezta zaratez ere.*)

SUEDIARRA

Zorionak denon izenean. Hona hemen zeuen plaka. (Ezkerraldeko atetik norbaitek jautikitako harria beraien albotik zeharkatzen du.)

ITALIARRA

(*Harria zein plaka begiratzuz.*) «Mamma mia!»

YANKIARRA

(*Ate zaratatsu hori haserre begiratzuz.*) «Thank you, very much!» (*Plaza hartzen du.*) Eta esaiguzue, zergatik izan dugu ohore hau?

FRANTSESA

(*Harria etorri den atea herstera doa, eta une horretan porru bat botatzen diote aurpegira.*) «Merde!» «Merde mille bider!» (*Altxatu eta atea hertsu.*)

EUSKADIKO BASERRITARRA

(*Ikaragaizki.*) Zuek oso onak izan zarie guretzat. Orain artean gure herriak menpreziatuta euki dabez, eztozulako eguzki askorik euki. Orain, ostera, modan gagoz. Ni, esate baterako, Markinakoa nazue eta beti egon naz hantxe sartuta, baserritik urten bere egin barik. Eta orain ikustekoak dira handik daukaguzan baserri urbanizaziñoak, jendez beteko mendiak. Behiak eta ortua ahaztuta

daukoguz, itxi doguz alde batera eta xirimiri industria itzelak ipini deuskuez.

(Ezkerraldeko atetik kristal, harri eta objektu gogorren zarata entzuten da.)

ITALIARRA

(Dardaraka.) «Ba bene!» Baina zergatik ez goazbeste toki la-saigo batetera hitz egiteko, eh?

(Eskumaldeko atetik zabaldu eta poliziak korrika pasatzen dira.)

POLIZIA

(Arnas hestuka eta dardaraka.) O...O...o...

YANKIARRA

Ze demontre gertatzen da?

POLIZIA

O...o...o...

ITALIARRA

Eta beti o...o...horretan ataskatzen da.

POLIZIA

O...o...orian ez dira ekologistak bakarrik. Herri beltz guztiak datozkigu!

IX. ESKENA

Pertsonaiak: Hiru pertsonaia arrotzak, Polizia, Maurua, Andre ijitoa, Gizon ijitoa, herri beltzetakoak, ekologista batzu eta autoestopista.

.....

FRANTSESA

Hau bai dela folklorea!

(Eskumaldeko atetik «herri beltzetakoak» agertzen dira. Ekologistekin gertatu den bezala, dagoen kopurua baino gehiago adierazi behar da. Sarreran mauru bat, andre eta gizon ijito bikote bat «flamenkoz» jantzirik, Afrikako beltza bat eta mexibar bat. Andre ugari dago, eta haiek batez ere hartzen dute esku.

Beltzaran hauek bortizki hitz egiten dute, eta keinuz beterik Mediterraneo herrietan egiten den bezala. Barrura sartu nahi dute, baina hiru pertsonai arrotzak eta poliziak ez dituzte uzten.)

POLIZIA

(Indarrez geldi erazten dituzten bitartean.) Gel...geldi zaitzte!

MURUA

(H-ak aspiratuz.) Ez dugu nahi! Hitz egin nahi dugu mahai inguru baten!

GIZON IJITOA

«Sortatu», guripa!

POLIZIA

Kanpora, zikinok!

ANDRE IJITOA

Eh! «Insurtatu» gabe, enborra!

MURUAK

«Majadero!»

FRANTSESA

«Dácork, dácord!» Baina lasai zaitztezte lehenago. (*Jende beltzarana isiltzen da eta tropelaka gelditzen da sarreran.*)

POLIZIA

(*Izerditan.*) Zertarako etorri zarete? Zer nahi duzue?

ANDRE IJITOA

(«z» gaztelaniazko «ce» bezala ahozkatzen duelarik, «l» ren ordeztuz «r» egiten du, eta abar...) Zertarako? «Xikiyo!» Ba, protestatzera, diot! (*Keinu eta doinu nabarmenak eginez.*)

GIZON IJITOA

Hori! Aizu! Ez dago eskubiderik! Diot!

POLIZIA

O...o...o...

FRANTSESA

(*Poliziarri.*) Utzidazu niri! Oto! «Sil vous plait! (*Jende beltzaranei.*) Orduan zuek ere manifestatzera etorri zarete?»

ANDRE IJITOA

«Amos, diot nik!» Manifestatzera eta beste edozertara! (*Lagunei.*) Ez al da hala? (*Beltzaranez onartzen dute.*)

GIZON IJITOA

Diot!

POLIZIA

Eta zeren aurka zaudete?

MURUA

(*Bere beste lagunei.*) Alajaina, jauna! Entzun diozue? Zeren aurka gaude?

ANDRE IJITOA

(*Mauruari.*) Utzi niri, «conpadre!» (*Poliziarri.*) Aizu! Zeren alde gauden galdetzen baduzu, lehenago bukatuko dugu. Diot! Ze hona etorri garen guztiok izorratuak gaude, diot!

GIZON IJITOA

Hori!

POLIZIA

Be...berdin da. Ze...zeren alde zaudete?

ANDRE IJITOA

Ai, «xiki»! Hain zara tontoa, ze polizia dirudizu! Ez duzu gure larruaren koloreaikusten? Bada, horrexen alde gaude. Eguzkia eta beroaren alde!

GIZON IJITOA

Hori!

ANDRE IJITOA

«...eta dantza, kanta, ardoa eta bizitza onaren alde, Ole!

GIZON IJITOA

Ole!

ANDRE IJITOA

(Beste atean dauden zuri guztiak seinalatuz.) Eta zuri papalardo horiek, gauza guzti hauek kendu nahi dizkigute!

GIZON IJITOA

Hori!

SUEDIARRA

Parka nazazu, andre. Baina guk ez diogu inori ezer kendu nahi. Moda da.

ANDRE IJITOA

Zer moda eta zer modaondo! Ilekiribilak! Zuek, betidanik dirua, industria, kultura eta ospea eraman dituzue. Eta guk, aitzitik, eguzkia ez beste. Eta ezjakintsu, txiro, kulturabekoak ginen... bai! Baina modan geunden. Eta jende guztia gure lurrera etortzen zen belztutzeko eta bizitza gozatzeko. Eta orain hori ere kendu egin nahi diguzue. Inundik inora ere ez! Zin dagizuet Makarenagatik!

GIZON IJITOA

Hori!

ANDRE IJTOA

Oraintxe bertan ikusiko duzue nola dakigun belzaranok gurea dena defendatzen. Goazen, «conpadres»!

(Zurumur ru haundiak eta flamenko musika entzuten da. Maki-lak ateratzen dituzte. Zuriak beste atetik ihes egin nahi dute, baina ekologistak orain alde horretatik agertzen dira, eta lehenengoa, autoestopista. Argiak ia amataturik daude, eta izugarrizko nahastea armatzen da. Musika tartekatzen da, oihu, disparo eta biraoekin batera. Autoestopista aurretik geratzen da, eta argiak batez ere bera argizatzen du. Atzetik zinetresna batek gerrairudiak prokjektatzen ditu, musika militar eta guda-zaratak entzun eta berehala.)

GERRA-ABOTSAK

«Gora belztasun askatua!
Gora Munduko beltzaranak!
Gora kolore iluna!
Gora!»

«Indar zurien desuztasuna»!
Beltza harmatua, inoiz ez zanpatua!»
«Liberté, égalité eta zurtasun-koloré»!
«Ai, kabroi!»

(Joan daitzen, joan daitezen, daitezen...) musika eta abestia.)

«Aurrera, «les infants zuri de la patrie»!
«Abanti populoaren» doinuaz:
«Aurrera guztiak
Aurrera guztiak
bandera beltza
bandera beltza.

Hemendik aurrera
gurea izango da
bandera beltza irabazlea»

(Andre baten abots iluna:)

«Boabdil, Boabdil: Negar, negar egizu, andreak bezala, zeure beltasuna ez duzu gizon bezala defendatzen jakin eta.»

(Gizon serio baten abotsa.) «Vini, vidi eta beltzak vinci».

X. ESKENA

Pertsonaiak: Burrukan daudenak, Autoestopista, Andre zuria.

(Oihu, zarata, disparo-hotsak eta abar entzuten ari diren bitartean, eskenatokiko atzeko aldea iluntzen ari da. Autoestopistak, keontzi eta gomazko piloetatik ihes egiten duelarik, aurreko ezker alde dago. Atzeko aldea astiro amatatzen ari da, eta ihuntasunaren erdian gerraren eskena projektatuak agertzen dira. Irudi hauek, eskenatokian burruketan ari diren pertsona batzuren itzalekin batera ikusten dira.)

AUTOESTOPISTA

Halajaina! Arraio guztiak! Hau infernu bat da!

(Korrika bailegoen dabil, tarteka marteka disparoatatik ihes egin eta lurrera erori. Apurka zalaparta motelduz eta projektagai-luaren irudiak desagertuz doaz. Dena ilunetan, autoestopistaren eitea ez beste nabari da. Geratu egiten da, arnas hestuka eta atzerantz sarritan izuz begiraka. Ez dago inor, bera izan ezik. Auto-zaratak motelki entzuten hasten dira, haseran entzuten ziren bezala. Eta argi urdina emaro zabaltzen denerako, haserako kamino-eskena agertzen da: zoluan plastikazko tira zuri eta fluoreszentea, eta hondoan mendi, pinu eta anuntzioetaz marrazturiko oihala. Norbaitek kriseilu dotorea kendu eta alfonbra enroilatu.

Berriz ere autoestopista kaminon dago.)

AUTOESTOPISTA

Azkenean kaminoaren bakea! Ea norbaitek hartzen nauen!

(Motxila kendu eta beraren alboan uzten du. Auto-stop egiten hasten da. Auto-zaratak gogotik, geratu egin gabe.

Honela egonez, berari ahuleria nabari zaio, zeren begiak hersten baititu. Oharkabez, haserako doinu ezaguna kantatzen du.

Nekatuta dagoelarik esartzen da, eta ahoan doinua txistuka, erdi lo geratzen da. Isiltasunean, autoestopistaren zurrungak soilik.

Hona heldurik bigarren eskenan bezalxe gertatuko da: betiko musika emeki entzutean eskenatokia gaueko argi urdinean murgildurik dago, eta hondoko atetik andre zuria «auto» batetan agertzen da. Dena berdin, neskaren kolorea izan ezik: zuriegia izan ordez belztasun sotila dager bere aurpegiak.

Neskak kotxea geraerazi du autoestopistaren parean. Baina loak harturiko mutilak, jaramonik ez. Orduan neskak kotxe turutan jotzen du. Autoestopista esnatzen da; eserita jarri eta andre zuria izualdi batetan begiratzen du.)

ANDRE ZURIA

(*Irribarrez.*) Norbait itxadoten ari zara?

(*Autoestopistak, aho zabalik eta ikara aurpegian adieraziz, zerbait esan nahi du, alferrik. Hots ezezagunak soilik irtetzen zaizkio.*)

ANDRE ZURIA

(*Mutila asaldatua ikustean, barre algaraka.*) Neu itxadoten ninduzun, ezta?

AUTOESTOPISTA

(*Atzerantza doalarik, beti ikara aurpegian.*) Zergatik ez zara zuria?

ANDRE ZURIA

Zuria? Ah, babalore! Ez dakizu ezer modaz. Zuri egotea ez da eramaten, txo! Beltzaranak izan behar dugu andreok!...

AUTOESTOPISTA

Baina... Moda berria?

ANDRE ZURIA

Zein moda? Zerbait berririk asmatu dute, ala?

AUTOESTOPISTA

Ezinestekoa da! (*Etengabeki entzuten den doinu finoari darraio, eta haserako bertsoak errepikatzen ditu antzerkitikiko jendeari begira.*)

«Hau ez ote da gero izango amets zoragarriren bat?»

ANDRE ZURIA

(*Aurpegi-hautsenkutzatila poltsikotik atera eta irtirinkeriaz or-*

nitzen du aurpegia.) Honela bada, moda berriren bat sortu baldin bada, laster ezagutuko dut, oraintxe noa Parisera eta. Ez genuke besterik behar! (*Autoestopistari.*) Ea, bazatoz nirekin?

AUTOESTOPISTA

Ez dut zutaz ezer jakin nahi, zu Andre zuria zara!

ANDRE ZURIA

Parka nazazu, baina norabait joan nahi izango zenuelakoan gelditu natzaizu, baina nondik atera duzu ni andre zuria naizela, edo zergatik deitzen nauzu horrela?

AUTOESTOPISTA

Begira, zurekin edonora joan ninteko, benetan, oso gustora, baina ezagutzen zaitut eta badakit nora eramango nauzun, badakit zer gertatuko den.

ANDRE ZURIA

Aizu, nik ez diot inorik kalterik egiten, baina atzeratuta bizi nahi baduzu, hor konpon! Ez zara batere modernoa, mutiko!

AUTOESTOPISTA

Ez eta nahi ere, beraz zoaz behingoan!

(Autoestopista neskaren autoa bultzatzerara doa, eta honek koxez alde egiten du alboko atetik. Autoestopista, burua makur, goibeldurik gelditu da.)

(Azken bertsoak Doinua, «Ezkongaietan zerbait banintzan».)

«Andre zuria, goizeko izar,
ustekabeen sortua!
agertu zaidan arte bititza
izan dut basamortua
maiteminaren minez ba daukat
bihotza suak hartua:
nahiago nuke izan ez balitz
irudimenak sortua.

Amerikarra, italiarra
ta hainbat gizon ilustre:
estilo berri, orijinalak
guretzat sortu dituzte,
ideiak ere inposaturik

nahiz ta guk hala ez uste:
Haiek komeni zaien modura
erabili nahi gaituzte.

«Pentsalari ta modagileok
ez dute hartzen atsedea,
goian daudenok omen dakite
guretzat zer den hoberen;
hau ikustean konturatu naiz
zein mundutan bizi garen;
ez dakit dena egia ala
amets bat izan ote den.

Andre zuriak bere ondotik
sortu digu hainbat nahaste,
negozio ta joku zikinak
ezin sinesteko beste;
ikasi ahal izan dugunez,
kontuz ibili gaitzke:
hemen azaldu zaizkigun denak
benetan gerta litezke.

Hoiek alferrik ez dute galtzen
dirua eta denbora,
zuhur jokatzaz asmatzen dute
azken estilo ta moda.
Gaurko saioa ahaztu gabe
aurrerantzean gogora:
beste edozein egun batetan
honela gertatuko da.

Tonto ustelak ez dira, gero,
modako merkatariak,
denon lepora lortzen dituzte
irabazi ugariak;
engainatzeko sekula ere
ez dira izan nagiak,
hoien parean usoak dira
txori harrapakariak.

«Azken modako pitxiak jantziz
badaukagu ikasterik,
askatasuna lortzeko ez da
beste gauza bat hobirik;
burua jarri digute denoi
amets faltsoez beterik:

hioen azpian gizona ez da
txinaurritxo bat besterik

Zabal zabalik ditugu denok
kontsumorako bideak,
atsegin handiz hartzen ditugu,
inon ez daude hobeak;
ardura gabe bizi gaitezen,
izan gaitezen libreak,
ezer pentsatu gabe jasorik
goitik datozen ideak.

Dirua eurrez dadukanari
boterea nola uka?
Agintaritza duen ezkerro
bagauzka harrapatuta,
ideiak ere igarri gabe
inposatu dizkigu ta:
era hontako jokoan giltza
kapitalismoak dauka.

Beraz, gainean daukagu denok
piztitzar horren itzala;
nola jokatu behar genuen
bakoitzak pentsa dezala;
hemen denpora eman gaberik
ni banoa berehala:
ihes egingo diot agudo
izurriari bezala.

Egun libre bat helduko zaigu
noizbait, ekin eta ekin,
ta ez genuke ezer jakin nahi
gaurko modagileekin;
kapitalismo hau ez dugu nahi
guk askatasunarekin:
bestela ez da askatasunik
kapitalismoarekin.

Korapilo hau askatzeko nik
ez dut asmatzen modurik,
nahaste zikin honetan sartuz
ez dut galdu nahi bururik;
andre zuria ta bere ametsa
betirako ahazturik,
alde batera utziko ditut
neure bidea harturik.

Auto-zaratak jo eta ke, doinuaren artean. Motxila hartu, eta oinak nekez narrazten dituelarik, beste aldera egiten du auto-stop keina, aterantza joango bailitzan. Eskenetokiko hondoko atetik —andre zuria agertu den tokitik— alde egiten du.)

TELOIA

AMAIERA